



## Mahatsetik botilara

Upategia eraiki dute Murgialdain. Mahatsa produzitzeaz gain txakolina ere bertan egiten hasi dira

# Zikloa borobildu dute

**Upategia** egokitu dute baserrian eta aurtengo txakolina etxean bertan egin dute, lehen aldiz



◀ Aritz Galdos, etxean egindako txakolinarekin.

Zapoz, usainez eta graduazior aurreko urteetakoaren antzekoa da, baina aurtengo Murgialdai txakolinak badu berezitasun bat, eta zera da: hasi eta buka etxean bertan egindakoa dela. Orain arte Getariako bodega batean egin izan dute ardoa, baina aurtent, lehen aldiz, etxean bertan egokitu duten upategian burutu dute elaborazio prozesu osoa.

2007an ekin zioten mahasti berriak landatzeari Murgialdai baserrian, *Getariako Txakolina* jatorri izendapena herrialde osora zabaltzarekin batera. Lehen urteetan batutako mahatsa saldu egin zuten, eta 2012ko uztaren zati batekin *Murgialdai*

etiketadun ardoa egiten hasi ziren, Getariako upategi batean. Aurtent, azkenik, prozesu osoa etxean bertan burutu ahal izan dute, aspaldiko ametsa egi bihurtuz. "Langintza honetan hasi ginenetik garbi genuen helburua zela gure txakolina ekoiztea eta produktu bukatu bat eskaintzea" azaldu digu Aritz Galdosek.

## UPATEGIA ERAIKI

2016an hasi ziren upategia eraikitzeko proiektua lantzen Murgialdain. Aurrez hasiak ziren etxeko basoetan haritz eta alertze egurrak aukeratzen, gerora upategiko estruktura eta teilatua egiteko erabili dituztenak.

2019an hasi ziren upategia eraikitzen, eta bi urteko lanen ostean, iazko uztan batutako mahatsa etxean prozesatu ahal izan dute. "Prozesu luzea izan da, betebeharrak administratiboak ere ugari izan dira, baina urrats sendoz egiten saiatu gara, eta bidez gozatuz. Pozgarria da proiektatu duzun hori aurrera doala ikustea. Apustu handia izan da upategia eraikitzea, baina, zorionez, proiektuan sinistu duen familiarreko eta lagun ekipo ederra osatzen dugu, bakoitzak dakiena eta ahal duen denbora eskainiz".

Upategia lau gune nagusitan banatzen da: mahatsa prozesatzeko gunea, hartzidura eta ontze gunea, botilaratze eta etiketatze gela, eta biltegia. Material tradizionalak eta teknologia berriak uztartu dituzte upategi berrian. "Isolamenduari garrantzi handia eman diogu eta geobiologo baten laguntza ere izan dugu txoko ezberdinen orientazio eta distribuzio egokia lortzeko. Mahatsa prozesatu eta txakolina egiteko makineriaren eraginkortasun energetikoari ere arreta berezia eskaini diogu, karbono aztarna murrizte aldera eta txakolinaren kalitate onenaren bila, beti ere". Gehienez 50.000 litro txakolin ekoizteko edukiera du Murgialdaiko upategiak.

## BASERRI IZAERARI EUTSI

Mahastizaintza eta ardogintza baserriko beste aktibitate bat bezala bizi dute Murgialdain, eta aurrerantzean ere baserri izaerari eutsi nahi diotela garbi dauka Galdosek. "Gure helburua ez da bodega isolatu bat egitea, base-

«Lehengaien  
produktuak  
mugatu  
soilik zaila  
da lehiakorra  
izatea»

«Apustu  
handia izan  
da upategia  
eraikitzea»

«Baserrian  
txertatutako  
proiektua da  
gurea»



# MURGIALDAIN



Upategia.

rrian txertatutako upategia baizik, monolaborantzan zentratu barik, produkzioa dibertsifikatuz (ganadua, ortua, basogintza...) eta ekoizpen eredu sustengarria, agroekologikoa eta integratua jorratuz; ardiak erabiltzen ditugu mahastiko zelaiak garbitzeko (hostoak erne arteko sasoian), ganaduaren simaurra mahastiak elikatzeko...".

Upategiaren kanpoaldeko urbanizazioa txukundu eta bisitarienezako harreara-gunea janztea besterik ez zaio falta obra amaitzeko. "Bisitak izan ditugunean botila izan dugu leku txukun bat edukitzea, azalpenak emateko

Botilak bete, itxi eta etiketatzeko makina berria



faltan

eta kata edo dastaketak egiteko gune bat, komun bat, irisgarritasun egokia... eta horretan gaitza". Udaberrirako dena prest edukitzea espero du Aritzek, eta orduan egingo dute inaugurazioa.

## AURTENGO TXAKOLINA

lazko negua epel joan zen eta mahats kimuen erretzea aurreratu egin zen, baina udaberriko izozteen ondorioz galdu egin zen uztaren zati handi bat. Ondoren, eguzki gutxiko uda izan genuen, horrek landarearen zikloa luzatzea ekarri zuen, eta kosta egin zitzaion mahatsari bere heldutasun maila egokira iristea. Urriko lehen hamabostaldian batu zuten mahatsa, eta

gorputz handiko txakolina eman duela esan digu Galdosek. "Bertiko Murgialdai txakolinaren ez-ugarriak ditu; 11,5º-ko alkohola, garratasun nahiko markatua, karboniko apur batekin, eta dastatu duen jendeak esan duenez, oso aromatikoa da".

Bodega etxean edukitzeak txakolinaren elaborazio prozesu guztiaren kontrol zehatzagoa egiteko aukera ematen dio, eta baita txakolin ezberdinetan testatzeko ere. Duela bi urte, adibidez, *Hondarribi Beltz* motako mahatsa landatu zuten, eta horrek beste ildo bateko ardoa egiteko aukera emango dio aurrerago, fruitua ematen hasten direnean.

Mahastizaintza eta enologia sektore oso dinamikoak direla dio Galdosek, eta, horregatik, garrantzia handia ematen dio etengabeko formazioari. "Ahalik eta kontrol gehien egiten saiatzen gara: lur analisiak, mahastien hosto eta txermenen azterketak, heltze prozesuaren kontrolak, ardogintza prozesukoak...". Enologiako masterra eginga du Galdosek, eta kanpoko aholkularien laguntza ere badu, behar denean.

Aurten 25.000 kilo inguru mahats batu dituzte Murgialdai, beste hainbeste txakolin botila betetzeko adina, eta dagoeneko salgai dago herriko taberna, jatetxe eta saltoki txikietan. "Oñatin bertan saltzen dugu gehiena eta, egia esan, oso eskertuta gaude, gure txakolinak harrera bikaina izan duelako hasieratik. Taberna, jatetxe eta denda gehienek bul-tzada izan genuen, eta gaur egun ere bezero eta lagun izaten jarraitzen dute, eta azpimarratu nahiko nuke, gainera, zuzeneko

4. orrian jarraitzen du >>



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA  
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP  
OINATI@COINBROKER.EUS





Aritz Galdos, upategi kanpoaldean.



Murgialdai baserria eta bere ingurunea.

harreman pertsonal hori dela prozesu honetako alderirik aberatsenetarikoa".

Arrasate eta Bergarako osatu eta saltoki batzuetan ere aurkituko Murgialdai txakolina, eta urrutirago ere saltzen dute uztaren zati txiki bat. "Zuzeneko salmenta sustatzea izan da gure hasierako filosofia, eta horri eusten saiatzen gara, baina sare sozialen bidez edo beste bide batzuetatik gure txakolinaren berri izan duten partikularrei edo jatetxeei ere bidaltzen diegu, Bilbora, Madrilera, Barzelonara, Almeriara... Atzerrira ere bidali izan ditugu botila batzuk, baina zenbait herrialdetara esportatu ahal izateko, derrigorrezkoa ikusten genuen bodega propioa edukitzea".

Edozein modutan, uztaren zatirik handiena (%60-%70) Oñatin bertan saltzen dute, izan ere, geurean ere gora egin baitu txakolina edateko ohiturak. "Bai, gu hasi ginenetik behintzat ikusi dugu gora egin duela kontsumoak. Lehen, beharbada, zerbait arrotzagoa zen, baina jendeak gero eta gehiago edaten du txakolina", azaldu digu Galdosek. "Gainera, eskertzekoa da Oñatiko herritarrek euren produktu bat bezala hartzea txakolina, bai kanpora doazenean opariren bat egiteko, edota bisitaren bat dutenean. Ardoaren inguruko kultura bat sortzen ari da herrian, dagoeneko hiru txakolin ezberdin ekoizten dira bertan, eta, azken batean, Oñatik duen beste ez-ugarri edo erakuslehoetako bat da". ■



Familia eta lagunak oinarri, mahats bilketan

## Oñati, ardoaren mapan

Txokolate-herri gisa ezagutu izan da Oñati historian zehar, baina azken urteotan ardoaren mapan kokatzen hasi dela ere esan daiteke. Bere garaian mahastizaintzan eta ardogintzan izan zuen tradizioa berreskuratzen ari da, poliki poliki, eta une honetan 16 hektarea inguru mahasti daude landatuta Oñatin Getariako Txakolina izendapenaren barruan.

Getaria, Aia eta Zarautzen ondoren Gipuzkoan mahasti gehien duen herria da gurea, eta bertan ekoiztutako hiru txakolin daude merkatuan (*Upaingoa*, *Murgialdai* eta *Belaskua*), hirurak ere ezberdinak. Horiez gain, beste lauzpabost mahasti-zale ere badaude herrian, eta argi dago, beraz, ardoaren inguruko kultura indarra hartzen ari dela Oñatin.



## 1895eko MAHASTIAK OÑATIN

Mahastizaintza eta ardogintza ez dira berriak Oñatin. Noizkoa den, zehazki, ez dakigu, baina XIX. menderako baserri baten baino gehiagotan egiten zen txakolina. Udal artxibategiko 1895eko agiri batean ikus daitezkeenez, urte hartan 106 area mahasti zeuden landatuta herrian. Hauek ziren mahasti jabeak:

- **Jose Manuel Maiztegi** (10 Area)  
Exibai Haundi
- **Francisco Barrutia** (18 A.)  
Coribargoiti
- **Rufino Elortondo** (10 A.)  
Arriagakoa (Arrixakua)
- **Marcelino Celaya** (10 A.)  
Upain
- **Hilario Galdos** (15 A.)  
Murgialdai
- **Jose Manuel Zubia** (10 A.)  
Etxenausi
- **Domingo Arrazola** (10 A.)  
Margol (Antuena)
- **Jose M<sup>a</sup> Echeverria** (18 A.)  
Margol (Urteazpikua)
- **Juan Gordo** (5 A.)  
Zelaieta





# “PREZIORIK ONENAK ETA GERTUKO ARRETA”

TELEFONO FINKOA

**+ FIBRA**  
300Mb

**+ 25Gb**  
MUGIKORRA  
DEI MUGAGABEEKIN

**+ 3Gb**  
2. MUGIKORRA  
DEI MUGAGABEEKIN

**39'90**  
€/HILEAN  
(BEZ barne)

BETIRAKO. IGOERARIK GABE!  
Alta ematea eta instalazioa **DOAN**

## TELEBISTA BAT ZOZKATUKO DUGU

martxoan eta apirilean LIZKER dendan  
alta gauzatzen duzuenon artean



Zozketa maiatzaren 15ean egingo dugu.  
Informazio gehiago gure sare sozialetan.

## EXTRAK:

\*Tarifa orokorretara gehitu daitezkeen aukerak

**TV PREMIUM** + **6** €/HILEAN

**2. ETXEBIZITZA**  
FIBRA + FINKOA + **18'90** €/HILEAN  
(Estatuko edozein herritan)

### ·MUGIKOR GEHIGARRIAK

**5Gb** + **3** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

**8Gb** + **5** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

**25Gb** + **8** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

### ·ESKAINZA BEREZIA!

**25Gb** + **1** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

Lehenengo 6 hilabeteetan. Ondoren + 8 €  
Promozioaren buketu mugak eta baliabideak baliabideak.

\*DENDAN KONTSULTATU ESKAINZA BEREZI GEHIAGO



Atzeko kale 32, OÑATI · Tel.: 943 090 600 (Aitor)

MÁSMÓV!L



**LIZKER**  
INFORMATIKA

# Bide seguru eta legalak ERREFUXIATUENTZAT!

## Kontzientziazio kanpaina antolatu du Hotz-Oñatik



Errefuxiatuei laguntzeko kanpaina ezberdinak antolatu ohi ditu Hotz-Oñati taldeak urtean zehar, baina oraingoan kontzientziazioan jarri nahi dute fokua bereziki, eta helburu horrekin antolatu dituzte **'Izan gaitzen babesleku. Bide seguru eta legalak orain!'** lelopean egingo diren jardunaldiak. Ondoko orrietan ikus datekeen moduan, lau ekitaldi interesgarri antolatu dituzte datozen asteetarako; gatazka, miseria edo jazarpenetik ihesi datozen migratzaileen errealitate latza eta gordina ikuspuntu ezberdinetatik aztertze aukera ezin hobea izango dugu.

Bi zati ditu Hotz-Oñatik kanpaina honetarako antolatu duen leloak. 'Izan gaitzen babes' dio lehenak, izan ere, ez dugu ahaztu behar gure arbasoak ere migratzaileak izan zirela eta, beraz, bidezkoa da geu ere orain harrera-herri izatea. "Euskaldunok herri askotan hartu izan gaituzten bezala, guk ere harrera berdina zor diegu hona iristen diren pertsoneri" azaldu digu Begoña Murguzurrek.

Leloaren bigarren zatiak 'Bide seguru eta legalak orain!' dio, migratzea eskubide bat dela gogoraraziz. "Beste herri batera lan edo bizibide bila joatea denon eskubide bat da, eta bidean dauden oztupoak kentzen baditugu, ezbehar, sufrimendu eta bidegabekeria asko ekidingo ditugu", dio Maialen Altunak. Ildo horretan, urrats bat gehiago emateko garaia dela uste dute Hotz-Oñatiko kideek; "beste aldera begiraten duten erakundeei exijitu behar diegu errefuxiatuek bizi duten drama lotsagabe eta bidegabe honekin amaitzeko neurriak har ditzatela behingoz".

Bien bitartean, geure esku ere badago errefuxiatuei laguntzea, besteak beste, beraien egoera erregularizatzeko beharrezkoa duten errolatze prozesuetan. Zentzu horretan, oso interesgarria izango da ehundik gora boluntario biltzen dituen Irungo Harrera Sareko kideen testigantza. "Animatu egin nahi ditugu oñatiarrak jardunaldi hauetan parte hartzera, eta errefuxiatuen errealitate gordina hurbiletik bizi dutenen eskutik ezagutzera. Animatu, baita ere, gure herrian ditugun errefuxiatuengana hurbiltzera, oso aberasgarria baita beraien esperientzia eta bizipenak ezagutzea".



**Maialen Altuna**

*«Migratzea eskubide bat da eta bidean dauden oztupoak kentzen baditugu, bidegabekeria asko ekidingo ditugu»*



**Begoña Murguzur**

*«Erakundeei exijitu behar diegu neurriak har ditzatela behingoz errefuxiatuen drama bidegabe honekin amaitzeko»*

### ► HITZALDIA

MARTXOAK 9 / KULTUR ETXEA, 19:00

## '¿Regularización de inmigrantes?'



Pobrezia eta garapenaren inguruko ikertzaile eta ekintzailea da Gonzalo Fanjul. Bartzelonako Osasun Globaleko Institutuko (ISGlobal) politika-zuzendaria, eta *PorCausa* Fundazioaren sortzaileetako bat.

Azkenaldian maiz azaldu da komunikabideetan egun bizi dugun krisi humanitarioa eta migrazio eredu kritikatuz. Immigrazio arazo gisa ikusten duen ideiarene guztiz kontra dago. Alderantziz, ekonomientzako irtenbidea eta oparotasunerako motor bezala ikusten du migrazioa. Horretarako, baina, hegoaldeko immigrazioari buruz dugun mehatxu-irudia aldatu behar dugu. Ildo horretan, oso kritikoa da Europa izaten ari den jokabidearekiko.

Hitzaldia online izango da, kultur etxean, 19:00etan (<https://tinyurl.com/HotzOnati>).

► DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA

MARTXOAK 15 / KULTUR ETXEA, 19:00

## 'Bigarren bidaia'

Unax Blancoren *Bigarren bidaia* (El segundo viaje) dokumentalak Bilbora iritsitako lau magrehtarren arteko solasaldi irekia jasotzen du. Familiaz, sorterria uzteko arrazoiez, arrazakeriaz, etorkizunaz eta ametsez mintzo dira.

"Lehen trantsizio-bidaia bat egin genuen, gure etxeak utzi eta bigarren bidaia bati ekiteko asmoz; gaur gizarte hau ere gurea izatea nahi dugu" diote gazteek. Bilboko 'Film Sozialak' nazioarteko jaialdian estreinatu zen iazko urrian.

Emanaldiaren ondoren, Unax Blanco zuzendariarekin eta protagonistetako batekin berba egiteko aukera egongo da.



► DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA

MARTXOAK 23 / KULTUR ETXEA, 19:00

## 'Aita Mari'

Stella Maris Berria txatarrarako atun-ontzi bat zen, baina Iñigo Mijangos eta Iñigo Gutiérrez *Salvamento Marítimo Humanitario* GKEko bi kidek ezohiko ideia bat izan zuten: arrantza-ontzia erreskate ontzi bihurtzea, Mediterraneo itsasoan itotzen ari diren errefuxiatuak salbatzeko. Horrela jaio zen Aita Mari ontzia.

'Aita Mari' dokumentalak ontziaren bi urte luzeko odisea kontatzen du, berreraikitze lanetatik hasi eta lehen erreskatearen gailurrerainokoa. Erreskate bateko eta Libiako patruila-ontzi batekin izandako tentsio uneak ere erakusten ditu. Proiekzioaren ostean SMHko kide batekin solasean aritzeko aukera egongo da.



► SOLASALDIA

APIRILAK 1 / KULTUR ETXEA, 19:00

## Irungo Harrera Sarea



Irungo Harrera Sarea 100 pertsonatik gorako boluntario sarea da, eta 2018an hasi ziren antolatzen modu solidarioan. Irungo tren geltokian abandonatuta eta eskubiderik gabe zeuden migratzaileei laguntzeko asmoz. Harrera duin bat eskaintzeko asmoz. San Juan plazan egoten dira egunero, 10:00etatik 12:00etara, eta informazio mahai bat dute bertan, transitan edo bidean dauden migratzaileei harrera egin eta informazioa emateko. Lantaldetan antolatzen dira, elikagaiak, arropa, garbitasuna, osasun laguntza eta abar eskaintzeko.

Harrera duina eta integrala eskaintzea erakunde publikoei dagokiela uste dute eta, horregatik, egunerokoan egiten duten lanarekin batera, informazio- eta salaketa-ekintza publikoak ere egiten dituzte migratzaileen giza eskubideak eta eskubide sozialak sistematikoki urratzen direla salatuz.



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea  
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza  
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6  
T.: 943 781 648  
onati@gualbiasores.com  
-  
[www.gualbiasores.com](http://www.gualbiasores.com)



# Martxoaren 8ko mobilizazioetan parte hartzera deitu du Udalak



Martxoaren 8an manifestazioa egingo da Foruen plazan, 19:00

Berdintasunaren aldeko konpromisoa berrestea- rekin batera, martxoaren 8aren inguruan Oñatin antolatuko diren ekitaldietan parte hartzeko deia luzatu die Udalak herritar guztiei.

Urtero bezala, martxoaren 8an, emakumeei historikoki usurpatu zaizkien eskubideak lortzeko egindako borroka anitzen esanahia gogora ekarri eta aldarrikatzen da. Borroka horiek emakumeen bizitzako hainbat arlotan aurrerapen handiak lortzen lagundu dute, eta emakumeen elkarteetan eta mugimendu feministaren ekarpenik gabe ez ziratekeen posible izango.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, giza eskubidea izateaz gain, demokrazian sakontzeko eta gizarte kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta sozialki nahiz ekonomikoki jasangarriagoa eraitzeko behar estrategikoa dela uste du Udalak. Eta ildo horretan, gizarte gisa dugun erronka handiari ahalik eta erantzun onena emateko aukera dugula dio, betiere herritarrekin eta tokiko elkarte eta mugimendu feministarekin lankidetzan estuan.

## Emakumeen Etxea egokitzeko eraikin bat erosi nahi du Udalak

Oñatiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. planak jaso zuen Emakumeen Etxea edo Txokoa martxan jartzea urrats garrantzitsua izango zela emakumeen ahal- duntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoan sakontzeko.

Bestalde, 2017ko Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesuan herritarrek adierazitakoari jarraituz, Oñatiko emakumeen espazioaren inguruko aurre- diagnostikoa egin zuen Udalak, eta orain espazio hori abian jartzeko bideari ekitea erabaki du. Baina horretarako espazio egokirik ez daukanez, Emakumeen Etxea hartuko duen eraikin bat erosteko prozesua jarri du abian.

Gutxienez 400m<sup>2</sup>-ko azalera duen lokal edo eraikin bat eskuratu nahi du eta 295.112 eurotan finkatu du gehienezko prezioa.

Eskaintza ekonomikoaz (51 puntu) gain, lokal edo eraikinaren kokapena (10), azalera (10), irisgarritasuna (3), egoera (10) eta diagnostikoan deskribatutako beharretara eta ezaugarrietara egokitzea (10) ere baloratuko dira, besteak beste.

### EGITARAUA / Oñatiko Udala - Sare Feminista - Bargastak

#### MARTXOAK 3, OSTEAGUNA

- **ZINE-KLUBA:** 'La Libertad' (Zuz.: Clara Roquet). Zine aretoan, 20:00

#### MARTXOAK 6, IGANDEA

- **EMAKUME ARTISAUEN AZOKA.** Azoka plazan, goizean zehar

#### MARTXOAK 8, ASTEARTEA

- **KONTZENTRAZIOA** Olakuako patotan 12:00
- **MANIFESTAZIOA** Foruen plazan, 19:00

#### MARTXOAK 10, OSTEAGUNA

- **ZINE-KLUBA:** 'La hija oscura' (Zuz.: Maggie Gyllenhaal). Zine aretoan, 20:00

#### MARTXOAK 30, ASTEAZKENA

- **'EMAKUMEAK'** Disziplina anitzeko ikuskizuna (dokumentala, nobela grafikoa, dantza ikuskizuna): Mundubat + itxaso Diaz + Elizabeth Casillas + NODE. Zine aretoan, 19:00. (Sarrerak: [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus))



#### Emakumeak - Node

Bi emakume eszenan, bi emakume ausart. Bidaia bat egitera behartuko dituzte bortxaz, eta askatasuna lortuko dute elkarrekin. Emakume erresiliente guztiei egindako omenaldia da. Opari ederra haiei denei, gu guztiontzat

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

## Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



## Martxoaren 8aren inguruko Udalaren adierazpena

Udalbatzak aho batez onartu du emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko adierazpena, helburu horrekin duen konpromisoa berretsiz. Zehazki, honako erronka hauetan aurrera egiteko konpromisoa adierazten da:

- Berdintasun planean jasotako helburu operatiboak ea ekintzak garatzeko baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak bermatzea.
- Mainstreaming strategiaren bidez, udalaren jardunean berdintasun ikuspegia era sistematikoan txertatzeko bideak finkatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema zabaltzea, detekzio goiztiarreko sistemen hobekuntzan aurrera eginez.
- Ikuspegi intersektionalaren integrazioan aurrera egitea.
- Berdintasunaren aldeko eta emakumeen ahalduentze indibidual, kolektibo eta soziopolitikorako bideak garatzen jarraitzea.

## Lagun Lekukoek ere ospatuko dute martxoaren 8a

Lagun Leku elkarteak ere antolatu du bere egitaraua martxoaren 8rako.

► **12:00** Patotan omenaldia egingo zaie hildako emakume eta haur guztiei. Genero-indarkeriaren aurkako gaitzepena adierazi eta emakumeen eskubideak aldarrikatuko ditugu.

► **12:30** Luntxa (pintxo eta edaria 1,50€). Tiketa Olakua tabernan erosi behar da.

► **14:30** Bazkaria Olakua tabernan (paela, oilaskoa, postrea, kafea eta edariak).

Prezioa: 20€ (bazkalondoan ordaindu beharko da). Bazkarirako izen-ematea: Olakua tabernan, Arantxa okindegian (Eskolatxo) edo 662961353 zenbakira deituta.

### GIZONEI ERE DEIALDIA

Lagun Lekuk dei egiten du martxoaren 8ko ekitaldi guztietan parte hartzera, eta gizonak ere animatu nahi ditu hausnarketa egitera eta berdintasunaren eta justiziaren alde egitera.

## JABETZE ESKOLA

### BARRETERAPIA LANTEGIA

Emakumeentzako Jabetze Eskolaren baitan, **Biobarrea-Barreterapia lantegia** egingo da (gaztelaniaz) apirilaren 1-2an. Zazpi orduko tailerra izango da, ostiralean (17:00-20:00) eta larunbatean (10:00-14:00). Edalontzia bizitzaz beterik edo erdi beterik ikusteko giltza guk daukagula gogoratuko da tailerrean. Matrikula, 5€.

### AUTODEFENTSA ZIBER-FEMINISTA

16-25 urte arteko neskei zuzendutako tailerra egingo da apirilaren 28an (17:00-20:00). Indarkeria matxista ahalbidetzen duten faktoreak eta espazio digitalean feminismoa bizi dadin zer aukera eta irizpide dauden aztertuko da tailer honetan. Dohainik.

## garmendia tejas



### Era guztietako teilatu eta egurrezko egiturak

25 urtetik gorako esperientzia daukagu eta urtean 150 obra baino gehiago egiten ditugu. Euskadin eta inguruetan erreferentzia gara estalkiak eta fatxadak eraiki eta birgaitzeko lanetan.

Basozabal Industriadea 5 • N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

[www.garmendiatejas.com](http://www.garmendiatejas.com)



Azkar egiten dugu lan



Kalitate-prezio onena.



Osoko zerbitzua



# Beita antzezlan websail bihurtu nahi du XUP! taldeak

**Crowdfunding** kanpaina bat jarri dute abian gastuei aurre egiten laguntzeko

laz estreinatu zuten *Beita* antzezlanean oinarrituta egongo da websaila, eta 15 minutuko **8 atal** izango ditu

[www.itsulapikoa.eus](http://www.itsulapikoa.eus) plataforman egin daitezke diru ekarpenak apirilaren 5era arte

Herriko zortzi gaztek osatzen duten antzerki taldea da XUP! lazko maiatzean aurkeztu zuten *Beita* antzezlan —beraien bigarrena—, arrakasta handiz aurkeztu ere —Santa Ana aretoa lepo bete zen hiru emanaldietan—, eta orain antzezlan hura pantailara eraman nahi dute, websail formatuan. "Oso gustura geratu ginen antzezlanak izan zuen harrerarekin. Jende asko hunkituta atera zen, ikusle askoren barrenak mugitzea lortu genuen, eta horrek animatu gintuen lanean jarraitzera. Antzezlanean jorratzen diren gaietan gehiago sakontzeko gogoia piztu zigun, eta hortik sortu zen websaila egiteko ideia" azaldu digute taldeko kideek.

Gogoratu, sexu eraso bat jasan duen gazte baten koadrilako lagunaren eta inguruko artean sortzen diren jarrerak, jokabideak eta erreakzioak jorratzen direla antzezlanean, gazteen egunerokoan presente dauden beste gatazka batzuekin batera —heldutasun aurreratua, drogak, harreman irekiak...—.

## GAZTEENTZAT EUSKARAZ

Ikuspegi gazte eta feministatik sortutako lana da. Gazteek gazteentzako egina, eta gainera euskaraz. "Gazteen ikuspuntutik eta euskaraz egindako lanetan hutsune handia ikusten dugu, ez dago erreferenterik, eta horrek ere bultzatu gaitu proiektu hau aurrera ateratzera".

15 minutuko 8 ataleko webseriea grabatzeko asmoa dute. Gidoia prest dute jada, baina ekipo teknikoaren (irudia, soinua...) lana ordaintzen laguntzeko *crowdfunding* kanpaina jarri dute abian [www.itsulapikoa.eus/proiektuak/beita](http://www.itsulapikoa.eus/proiektuak/beita) plataforman. Gutxienez 3.000€ lortzea da helburua. apirilaren 5era arte egin ahal izango dira ekarpenak, eta trukean opari ezberdinak emango dituzte.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)



SUMMER CAMPS 2022

# WANTED

mondragon  
Lingua

- Adina: 5 eta 11 urteko haurrak.
- Ordutegia: from 9:30 am. to 13:00 pm.
- Iraupena: 2 - 4 weeks
- Datak: June 27th - July 22nd
- Haurrak hartzeko zerbitzua: 8:30am. - 9:30am
- INGELESA ekintza hauen bitartez: Irteerak, MasterChef, eskulan tailerrak (barruan eta kanpoan), jolasak eta kirolak.

Izena ematea  
irekita  
maiatzaren  
31ra arte



Zure  
ordutegira  
egokitzen  
gara

## REWARD

Dibertsio handia ingelesez!



<https://summercamps.mondragonlingua.com/oinati>



[mloinati@mondragonlingua.com](mailto:mloinati@mondragonlingua.com)



943 71 60 00



mondragonLingua

**E**uskal Herriaren memoria kolektiboa berreskuratu eta ezagutzera emateko xedez sortutako taldea da Nabarralde. Oñatin ere badu talde eragilea, eta honek gonbidatuta Oñatin izan dugu berriki Angel Rekalde (Tolosa, 1957), Nabarraldeko zuzendaria, Paradigma Nafarraz hitz egiten.

#### Zer da Paradigma Nafarra?

Errealitate bat ulertzeko eta interpretatzeko erabiltzen den eredu edo modeloari esaten zaio paradigma, eta gure herriaren errealitatera ekarrita, orain arte erabili izan diren paradigmak, gure ustez mugatuak, gaitzitu nahi dituen ereduak da Paradigma Nafarra. Alegia, Euskal Herriak sekula estatu propioirik izan ez duela dioten aurrean aldarrikatzen dugu euskaldunok herri bat osatu dugula historian zehar, bere nortasun propioarekin, eta kontzientzia horren ondorioz sortu zela Nafar estatura, nortasun hura eta independentzia bermatzeko asmoz, eta estatu horrek bizirik iraun zuela Espainiak eta Frantziak okupatu zuten arte. Hau da, Nafarroa da euskal errealitatearen ardatza, erdigune politikoa; Nafarroa da euskal herriaren Estatu historiko bakarra, eta hori garbi eduki behar dugu gure herriaren errealitatea interpretatzeko.

#### Xabier Irujoren 'Protocolos sobre la independencia del Reino de Navarra y sus relaciones con Francia' liburua hartu zenuen hizketagai zure hitzaldian. Zergatik?

Paradigma nafarraren adibide oso garbia delako, nire ustez. Frantziako Iraultza garaian Nafar Erresumako sindikoa zen Étienne Polverelek Frantziako Biltzar Nazionalaren aurrean eman zuen hitzaldiaren arrazoibideak jasotzen dira bertan. Polverelek hogeit hamar tesi planteatzen ditu, zera defendatzeko: Nafarroa erresuma askea zela, sekula ez zela Frantziar erresumako parte izan eta, ondorioz, bertako hiritarrak nafarrak zirela eta ez frantsesak.

#### Paradigma nafarra berreskuratu behar dugula diozue Nabarralden. Zergatik eta, bereziki, zertarako?

Gure herriaren historia eta bilakaera ulertzeko, gure nazio kontzientzia indartzeko eta, jakina, gure etorkizuna eraikitzeko. Arazo bat konpondu behar duzunean, diagnostiko egokia egitea da aurreneko urratsa. Historiografia ofizialak gizaldietan zehar helarazitako iruzurrak gezurtatu behar ditugu. Gure historia ezagutu behar dugu; zer garen ulertzeko, zer izan garen jakitea beharrezkoa da. Ez baldin bagara gai gure ikuspegi propio bat izateko, batik bat historiari dagokionean, gure lurraldea konkistatu eta okupatu zutenen zentraltasuna, subiranotasuna kendu zigutena, hizkuntza, kultura eta erakunde propioak

## ANGEL REKALDE

Nabarraldeko zuzendaria

"Gure herriaren historia ulertzeko, nazio kontzientzia indartzeko eta gure etorkizuna eraikitzeko balio du Paradigma Nafarrak"



*Nafarroa da euskal errealitatearen ardatza, erdigune politikoa; Nafarroa da euskal herriaren Estatu historiko bakarra, eta hori garbi eduki behar dugu gure herriaren errealitatea interpretatzeko*



*Alderdi abertzaleen estrategiak gaur egun dugun errealitateetik abiatzen dira, baina ezin dugu ahaztu errealitate horren atzean konkista dagoela, zapalkuntza, akulturazioa...*



*Ez dut esan nahi gure estrategia oso osorik oinarritu behar denik identitate kontuetan, baina subjektu politiko kohesionatu bat osatzeko oso garbi izan behar dugu nor garen. Bestela, gure historia Espainia edo Frantziakoaren zati bat besterik ez da izango*



gutxitu zizkigutenena hartuko dugu geuretzat.

### Nola ikusten dituzu alderdi abertzaleen estrategia politikoak egun? Aintzat hartzen al dute paradigma nafarra?

Esango nuke ezetz. Alderdien strategiak gaur egun dugun errealitateki abiatzen dira eta ez daude formulatuta paradigma nafarraren arabera, nire ustez. Beti hartu behar da kontuan gaur egun bizi dugun errealitatea, jakina, baina garbi edukita gaur egun dugun zatiketaren atzean konkista dagoela, bortxa dagoela, zapalkuntza, akulturazioa... Ezin dugu akritikoki onartu gaurko errealitatea, bestela behin eta berriz estropezu egiteko arriskua baitago.

### Badira, hala ere, historiari hainbeste erreparatu gabe, eduki sozialetan oinarritutako estrategia independentista baten aldeko apustua hobesten dutenak.

Ikuspuntu pobrea iruditzen zait. Estatu menderatzaileek oso ondo zaintzen eta elikatzen dute beraien identitatea eta nazio kontzientzia etengabe, dela hezkuntzaren bidez, dela komunikabideen bidez. Ez dut esan nahi gure estrategia oso osorik oinarritu behar denik identitate kontuetan, baina herriak bere erreferenteak izan behar ditu (historia, memoria, nortasuna, lurraldea, hizkuntza, kultura...). Subjektu politiko kohesionatu bat osatzeko eta gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, oso garbi izan behar dugu nor garen. Bestela, gure historia ez da nazio historia izango, Espainia edo Frantziako historiaren zati bat baizik. Historiaren errelatoaren frontea oso garrantzitsua da, eta pedagogia lan handia egin beharra dago.

### Amaiur gazteluko setioaren 500. urteurrena beteko da aurten. Data esanguratsua Euskal Herriaren historian. Ez dirudi, hala ere, oihartzun handirik izango duenik, erkidego autonomoan behintzat.

Horixe baita arazoa, alegia, nafarren historiako gertakari bat bezala ikusten dugula, eta nola gu ez garen nafarrak.... Hor ikusten da okerra. Amaiurko gaztelua eta bertako setioa gure independentziaren eta estatuaren ikur edo erreferente izan beharko litzateke, euskaldun guztiona.

### Eskolan behar bezala irakasten al da gure herriaren historia?

Zalantzak ditut. Akulturazioa gure artean oso barneratuta daukagu. Oso ondo landu dute gure kontra mendeetan zehar eta, tamalez, herri kontzientzia nahiko galdua daukagu. Horregatik da beharrezkoa Nabarralde eta beste talde batzuk egiten ari diren lana. Izugarritzko lana egiten ari dira informazioa gaurkotzen, eta behintzat orain baditugu tresnak lehen ez zeudenak. ■

## Oñatik bere Korrika antolatu dezan proposatu du eskualdeko AEK-k



KORRIKAREN ibilbidetik kanpo geratu da aurten Oñati, tamalez, baina hutsune hori betetzeko, Oñatin bertako KORRIKA antolatzea proposatu dute Debagoieneko AEKtik. Proposamena aurrera ateratzen bada, apirilaren 1ean egingo litzateke, hain zuzen ere Korrika ofiziala Bergaratik Arrasate aldera joango den egun berean. Asmoa da, goiz partean herriko ikastetxeen artean Korrika Txikia egitea Oñatiko kaleetan, eta jarraian Oñatiko Korrika Elorregi aldera abiatzea, Bergaratik etorriko den KORRIKAREkin bat egiteko. Biribilgunetik

Ekilore arteko kilometroa ere Oñatiko eragileentzat gordeko da. Martxoaren 3an egingo da Oñatiko Korrika Batzordearen hurrengo bilera, kultur etxean (18:00) lagundu nahi duten herritar guztiei irekia.

## Zabalik dago SALTO! udalekuetan izena emateko epea. Begiraleak eta sukaldariak kontratatzeke deialdia ere egin dute.



UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak antolatuta, ekainaren 27tik uztailaren 3ra egingo da **Salto!** udaleku ibiltaria, 14-18 urte arteko gazteentzat. Aurten 50 laguneko bi talde osatuko dira; horietako bat Tolosatik abiatuko da eta bestea Etxarri Aranaztik, eta laugarren egunean Leitzaun elkartuko dira denak. Gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea eta eragile aktibo

bihurtzea da helburua. Martxoaren 31ra arte egongo da zabalik izen-ematea, 943 816 699 / [asnarguneak@uema.eus](mailto:asnarguneak@uema.eus).

Udalekuetarako begiraleak eta sukaldariak ere kontratatu nahi ditu UEMAK. Martxoaren 4a baino lehen eman behar da izena [asnarguneak@uema.eus](mailto:asnarguneak@uema.eus) helbidean. Informazio gehiago: [www.uema.eus](http://www.uema.eus)

## Txernobyngo haurrak udan Euskal Herrira ekartzeko familiak behar dira



Txernobyngo Lagunak elkarteak kanpaina bat jarri du abian 'Eman arnasa' lelopean, uda partean Ukrainako haur eta gaztetxoak etxean hartzeko prest dauden harrera-familiak erakartzeko.

Txernobyngo hondamendi nuklearrak kaltetutako eremuan bizi diren adingabeak dira hona etortzen direnak, eta Euskal Herrian ematen duten denboran haien osasuna nabarmen hobetzen da, inmunitate-sistema sendotu egiten baitaie. Tamalez, baina, pandemiak zapuztu egin zituen 2020ko eta 2021eko haur ukrainarren egonaldia eta, orain, gainera, Errusiarekin sortutako krisiak eragindako tentsioa bizi dute. Horregatik, Txernobyngo Lagunak elkarteak ahalegin berezia egin nahi du ahalik eta haur gehien ekartzeko. Martxoaren 15ean amaituko da izen-emate epea. Informazioa: [chernobilenlagunak.org](http://chernobilenlagunak.org)

# Herriko landalur lursailak erosteko prozedura abian jarri du Udalak

**Hektareko 3.500 €-tan finkatu da gehienezko prezioa**

Proposamenak aurkezteko 30 egun naturaleko epea egongo da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren

Oñatiko udalaren helburuen artean dago bertako espezie, baso eta ekosistemen kontserbazioa indartzea, eta bioaniztasunaren galera geldituko duten politikak sustatzea.

Ildo horretan, ingurumen balioak galtzeko arriskuan egon daitezkeen eremuak identifikatu eta kontserbaziorako ekintzak sustatzeaz gain, bestelako egurgintza eredu baten aldeko praktikak martxan jartzea da Udalaren asmoa; hazkuntza azkarreko monokultiboek gain, jasangarriagoak eta errentagarriak izan daitezkeen landaketa zein ustiaketa eredu ezberdinak posible direla erakutsiz.

Horrekin batera, gaur egun kontserbazio egoera onean dauden lursailak bere horretan mantentzeko politikak ere sustatu nahi ditu Udalak. Eta aipatutako helburuak gauzatu ahal izateko, gaur egun jabetzan dituen lursailak gain, landalur izaerako lursail berriak eskuratu nahi ditu, eta horretarako prozedura irekia jarri du abian, salerosketa prozesua arautuko duen baldintza-agiria onartuta.

## LANDALUR IZAERAKO LURSAILAK

Oñatiko udalerrian kokatuta dauden landalur izaerako lursailak eskuratu nahi ditu Udalak: basoak, landatutako basoak, ibaiertzekoak, zuhaixkak, sastrakadiak... Ingurumen balioak galtzeko arriskuan egon daitezkeen eremuak edo lursailak, basogintza ikuspegi batetik utzita dauden edo balore gutxiak diren lurak.

Aurkezten diren lursailak gutxienez hektarea

bateko azalera izan beharko dute (salbuespen batzuk jaso dira oinarrietan). Gainera, saldu nahi den finkak mota guztietako kargetatik libre egon beharko du. Zor ekonomikoak ordaindu gabe badaude, elkarren artean onartutako salerosketa prezioetik kendu ahal izango dira.

## GEHIENEZKO PREZIOA

Eskaintzen diren lursail guztientzako 3.500€/Ha-ko gehienezko prezioa ezarri da, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak azkenaldian egindako tasazioak eta merkatu prezioa kontuan hartuta.

Lizitazailer bakoitzak nahi beste lursail aurkezteko aukera izango du, baina finka bakoitza banan-banan baloratuko da.

Eskaintza ekonomikoaz (gehienez 20 puntu) gain, lursailaren azalera (gehienez 20 puntu), Udalaren jabetzapeko lursaillekiko gertutasuna (gehienez 30 puntu), eta bertako basoen kontserbaziorako ekarpena (gehienez 20 puntu) baloratuko dira (berezko ingurumen balioa izatea edo degradatzeko aukera edukitzea).

Jasotako puntuazioaren arabera zerrenda osatuko da, udal aurrekontuetan dagoen diru-atala agortu arte.

Deialdia eta baldintza zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita 30 egun naturaleko epea egongo da proposamenak aurkezteko, elektronikoki edo paperean.

## Katalogatu gabeko lursailen inbentarioa egin du Udalak

Bere jabetzako lursailak inbentariatzeko lanak egin ditu Udalak 2021 ean zehar, *Errez* kooperatibaren laguntzarekin.

1988an egin zuen Juan Gordoak katalogatu gabeko Oñatiko udalaren jabetzako lurren inguruko lanketa, eta orduko lan hori eguneratu nahi izan du Udalak, informazio hori euskarri digitalean edukitzeko eta, batez ere, lursail horien kudeaketari heldu ahal izateko.

Bi helburu nagusi izan ditu *Errez* kooperatibak egindako azterlanak: batetik, Udalaren jabetzako sail edo partzelak zehazten dituzten mugarriak aurkitu eta zerrendatzea (GPS bidezko koordinatuak eta argazkiak), eta, bestetik, jabetza edo unada bakoitzaren identifikazioa, kokapena eta deskribapena egitea. (Sail bakoitzaren barruan egitura eta adin beretsuko eremu unitate bezala definitzen da unada).

Unada bakoitzaren deskribapena egiteko hainbat aldagai hartu dira kontuan (kokapena, formazioa, adina,

**ARANBURU  
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**


**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**



**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxes: 943 71 62 40





Udaletxean dago ikusgai Errez kooperatibak egindako azterlana

masaren forma, zuhaitz espezieak, azalera basimetrikoa, garaiera, osasun egoera, espezie exotikoak, bioaniztasun elementuak, egur ekoizpen gaitasuna...), eta fitxa bat osatu da bakoitzarentzat.

### EMAITZAK

Aztertu diren lursailen egiturari dagokionez, landa erako edo zuhaitzu gabeko eremuek azalera osoaren %55 hartzen dute, eta eremu basotuen artean txaradiak eta landaketez metatzen dute azalerarik handiena. Nabarmenezkoa da baita ere, duten balio kulturala kontuan hartuz, aisialdi bideratutako hiru hiribaso (2,8Ha) eta oin lepatuz osatutako zazpi unada (3,4 Ha.) ere badaudela tartean.

Zuhaitz espeziei erreparatuz, azalaren %68,7 bertako

espeziez (pagoa era haritz kanduduna) osatuta dago, eta landaketetan aurkitutako espezie gehienak (intsinis eta larizio pinuak eta haritz amerikarra) zur ekoizpena bideratuta daude.

Unada bakoitzean dagoen egur bolumenaren estimazio bat ere jaso da azterlanean, eta, oro har, aztertutako unada gehien osasun egoera ona edo oso ona dela ondorioztatu da. Bioaniztasunaren aldetik interesgarriak diren elementuak ere (sasiakaziak, izeiak, zuhaitz lepatuak...) identifikatu dira, eta baso-kudeaketari dagokionez, zenbait lan ere proposatzen ditu txostenak: basoaren egoera hobetzeko bakandu beharreko unadak, garbitu beharrekoak, moztu daitezkeenak...

## Eukalipto landaketak debekatzearen aldeko mozioa onartu du Udalak

Herriko hainbat eragilek aurkeztutako mozioa EH Bilduren aldeko botoz atera da aurrera. EAJ aurka agertu da.

Oñatiko herritar talde batek (Bargastak, Gazte Asanblada, Ernai, STH, Oñatiko Naturzaliak, Oñatiko Duintasuna Taldea, LAB eta ELAren atxikimenduarekin) aurkeztu eta eukalipto landaketak debekatzear eskatzen duen mozioa onartu zuen udalbatzak otsaileko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz.

Hiru eskaera jasotzen ditu onartutako testuak:

-Ebidentzia zientifikoei eta egungo eta etorkizuneko belaunaldien interes kolektiboari men eginez, udalerriz guztian eukalipto landaketak egitea debekatzea.

-Eusko Jaurlaritzari eskatzea, eratu dezala ahalik eta lasterren Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskadiko Katalogoa, eta ireki dezala *Eucalyptus* espezie desberdinak katalogo horretan sartzeko administrazio prozedura.

-Foru Aldundiari eskatzea alda ditzala baso politikak, bere lurraldean eukalipto gehiago landatu ez dadin, eta titulartasun publikoko zein pribatuko mendietan egun dauden eukalipto sailen ordezkapen ordenatua planifika dezan.

Mozioak dioenez, Eusko Jaurlaritzaren enkarguz EHUK eta Aranzadi zientzia elkarteak egindako ikerketak argi eta garbi erakusten du eukaliptoaren eragina kaltegarria dela ingurumenerako.

Mendien kudeaketaren eskumena Aldundiarena bada ere, EH Bilduk adierazi zuen udal ere badituztela eukalipto landaketei aurre egiteko tresnak, eta Aramaio edo Zaldibarko udal egindako bidea jarraitzeko asmoa adierazi zuen, debekua gauzatzen saiatzeko.

EAJK adierazi zuen debekuaren kontra dagoela. Jeltzaleek gogorarazi zuten egunero erabiltzen ditugun produktu asko eukalipto-zelulosaren eratorriak direla, eta galdetu zuen ea ekologikoki sostengarria den egur hori Uruguaytik ekartzea. Jeltzaleek esan zuten basoen kudeaketa orekatua dela irtenbidea, eta eremu jakin batzuetan (ingurumen balio txikiagoa dutenak) eukalipto landatu beharko dela. ■

**EGUR-LAN**  
AROSZTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop

## Olakuako 3 eta 4 zenbakien inguruko urbanizazioa berritzeko lanak lizitaziora atera ditu Udalak



Olakua auzoko 3-A/3-B eta 4-A/4-B etxe blokeen inguruko urbanizazioa berritzeko lanak esleitzeko prozesua abian jarri du Udalak. A2B Arquitectos enpresak idatzitako proiektuaren arabera, atari horien inguruko oinezkoen ibilbideak, zebra-bideak eta mugikortasun urrua duten pertsonentzako aparkalekuak berrituko dituzte, irisgarritasun arauetara egokituz, edo araua guztiz bete ezin denean, gaur egungo egoera nabarmen hobetzeko. Bide batez, inguru horretako saneamendu eta ur hornidura sarea berritzeko ere probestuko da. Lanek 259 mila euroko aurrekontua dute. Enpresek martxoaren 21era arteko epea dute eskaintzak aurkezteko.

### SAN LORENTZOKO 10. AREA

Bestalde, Udalak A2B Arquitectos enpresari enkargatu dio San Lorenzo auzoko 10. areako irisgarritasun lanak egiteko proiektua idaztea, 8.775€-tan (BEZ kanpo). Fase honetan auzoko 50-51-52 eta 56-57 etxe-blokeen inguruko urbanizazioa berritu nahi da, eta, horrez gain, San Lorentzoko perimetro edo eratzuneko zati bat konpontzea ere aztertuko da, batez ere zintzilarioetako irisgarritasuna bermatzeko.

## Beasain-Bergara errepideko bidesariari buruzko informazioa Oñatin emango du Aldundiak

Dakizuen moduan, 2022ko urtarrilaren 18an sartu zen indarrean A-636 errepideko (Beasain-Bergara) bidesaria. Horren harira, Foru Aldundiak informazio kanpaina bat jarri zuen abian, bereziki autobia horretatik gertu dauden eta teleordainketarako gailurik ez duten biztanleei zuzenduta. Bada, **martxoaren 9an** eta **28an** Zubikoa kiroldegian eskainiko dute aurrez aurreko informazioa (9:30-13:30 eta 16:00-20:00). Tarifei, deskontuei edo teleordainketa sistemari (Abiatu) buruzko informazioa jaso ahal izango dugu bertan.

## • UDALAREN DIRULAGUNTZAK •

### Adikzioen tratamendurako laguntzak

Adikzio mota ezberdinak tratatzeko Oñatitik kanpora egin behar izaten diren bidaiak eragindako gastuak arintzeko dirulaguntzak. Eskaerak egiteko epea: azaroak 30.

### Emakumeentzako dirulaguntza

Arrazoi ezberdinak tarteko, bizikidetzeta unitatea hautsi eta familia kargei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten emakumeentzako laguntza, eguneroko gastuei aurre egiteko. Eskaerak egiteko epea: azaroak 30.

### Su detektagailuak jartzeko laguntzak

Etxean bakarrik edo adin beretsuko beste lagun baten bizi diren 80 urtetik gorako pertsonentzako laguntza, etxean su detektagailuak ipintzeko. Udalak hartzen du bere gain instalazio eta mantenu gastuak. Eskaera epea: azaroak 30.

### Kirol talde eta elkarteentzako laguntzak

Kirola sustatu eta ohiz kanpoko kirol jarduerak antolatzen dituzten elkarte eta taldeei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Hilabeteko epea egongo da eskaerak aurkezteko, deialdia GAOn argitaratzen denetik.

### Gizarte larrialdietarako dirulaguntzak

Gizarte larrialdietarako laguntzak Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira, baina laguntza horiek emateko baliabideak ez dira nahikoak Oñatiko biztanleen eskaerei erantzuteko. Hori dela eta, Udalak diru atal bat aurreikusten du urtero, Jaurlaritzak bete ezin dituen kasuei erantzuteko. Gizarte bazterkeria prebenitzea, saihestea edo arintzea da laguntza hauen xedea, eta gastu espezifikoek, ohikoei nahiz ezohikoei aurre egiteko ematen zaizkie, Jaurlaritzak zehazten dituen baldintzak betetzen dituzten pertsonen. Informazioa eta eskaerak udal Gizarte Zerbitzuetan.


### Gizarte zerbitzuen arloan diharduten taldeentzako dirulaguntzak

Gizarte zerbitzuen arloan diharduten elkarteek laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartu eta 2022ko deialdia egitea erabaki du udalak. Oñatin edo eskualdean lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakundeei zuzenduta daude. Herrialdean lan egiten duten elkarteek ere jaso ahal izango dituzte, Oñatitik jasotzen dituzten zerbitzu eskaerei erantzuten dietenean.

**Gezalaga**  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com





## Armarri eta bandera ofzialen diseinua aldatuko du Udalak

Eusko Ikaskuntzak egindako ikerketa lanean oinarritzen da diseinu aldaketa. Orain espedientea aztertu eta alegazioak aurkeztu ahal izateko epea irekiko da eta, asmoa da, martxoko osoko bilkuran onartzea armari eta bandera berriak.

Gipuzkoako Toki Erakundearen Erregistroa herrialdeko udalari guztietako informazio guztia eguneratzen ari da, eta erakunde horretatik Oñatiko Udalarari egindako errekerimendua aintzat hartuz, Udalak Eusko Ikaskuntzari eskatu zion Oñatiko armari eta bandera ofzialen inguruko azterlana egitea.

Eusko Ikaskuntzako M<sup>a</sup> Rosa Ayerbe historialariak egin du azterlana, historian zehar Oñatik izan dituen armari eta bandera edo estandarte ezberdinen nondik norakoak eta ezaugarriak aztertuz, eta Heraldika- nahiz Vexilologia- (banderak aztertzen dituen zientzia) printzipioak aintzat hartuz, Oñatiko egungo armari eta bandera ofzialen diseinuan zenbait aldaketa egitea proposatzen du, Udalarari igorritako txostenean.

Orain, Administrazio Publikoaren Prozedura Legeak agintzen duena betez, Udalak jendaurrean ipiniko du txostena, interesa duen orok kontsultatu eta bidezko gerta daitezkeen alegazioak aurkeztu ahal izateko. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera, 20 egun balioduneko epea irekiko da espedientea kontsultatzeko (Udalaren webgunean ikusgai egongo da), eta ustekaberik ez bada, martxoko osoko bilkuran onartuko ditu udalbatzak armari eta bandera ofzialen diseinu berriak.



*Gaur egungo armari eta bandera ofzialak*



**AZALPEN BILERA**  
**Martxoak 21, Santa Anan**  
*Armarriari egin zaizkion aldaketan inguruko azalpenak emateko saioa egingo da, herritar guztiei irekia.*

### DISEINU BERRIAK

Ondoko argazkietan ikus daitezkeen moduan, armariari goiko koroa kenduko zaio. Egun erabiltzen den koroak ez omen du zentzu handirik, Eusko Ikaskuntzaren iritziz; Alemanian erabili ohi den Zaldunen Koroaren antzekoa omen da, eta izatekotan, Espainiako Errege Koroa legokioke. Aukera ezberdinen artean, Udalak koroarik gabekoaren alde egin du.

Armarriaren forma bera ere aldatu egingo da (forma biribila izango du behealdean, hemengo ohiturari jarraituz, eta ez puntaduna, Frantzian ohikoagoa dena). Kolore edo esmalteak ere zuzendu dira, Heraldikan erabiltzen diren oinarrizko kolore (gorria, urdina, beltza eta berdea) eta metaletara (urrea eta zilarra) moldatuz. Apaingarri gisa erabili izan diren erramu itxurako hostoak ere kendu egingo zaizkio, ez baitira oso ohikoak gure inguruko udal armarietan halako apaingarriak.

Banderari dagokionez, forma errektangularra izango du (gaur egungoak estandarte forma du). Gainerakoan, heraldikan oso erabilia den San Andresen gurutzea (apaltasuna eta sufrimendua irudikatzen ditu) eta erdian armaria izango du, baina kendu egingo dira orain arte irakur zitezkeen 'Hiri Bikain eta Leiala Oñati' leloa, ez dagokiola ulertzen delako. ■



# Fideltasunaren aitortza

Odola 25, 50, 75 eta 100 aldiz eman duten 22 herritarrei esker ona adierazi die Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak urtero egin ohi du odola 25, 50 (emakumeen kasuan 40), 75 edo 100 aldiz eman duten herritarrei esker ona adierazteko ekitaldia, baina Covid-ak erabat baldintzatu ditu azken urteotako aitortza saioak, eta, hala, 2020koak saritu zituzten otsailaren 18an.

Bakoitzari dagokion diploma ematearekin batera, eskerrik zintzoena eman zien Pili Irazabalek, Oñatiko Odol Emaileen Elkartearen izenean, "eredu eta fidelak izateagatik". Enpresagintza fakultateari ere eskerrak eman zizkion, beste behin, odol ateraldietarako ematen dituen erraztasunengatik.

Gipuzkoarrek, oro har, eta oñatiarrek ere bai, ondo erantzuten dute, baina odola behar beharrezkoa dela gogorarazi zuen Irazabalek. "Pandemiarekin jaitsi egin dira odol emateak eta aurtun lehen aldiz Euskadik eskatu egin behar izan du odola beste komunitate batzuetara". Horregatik, animatu egin zituen herritarrek, batez ere gazteak, odola ematera.

Pandemia garaian hartutako neurria (odola emateko aurrez hitzordua hartu beharra) geratzeko etorri dela azaldu zuen Irazabalek. "Horrek mugatu egiten du emanaldi bakoitzeko emaile kopurua, baina askoz erosoagoa da". Oraingo ordutegia ere mantendu egingo da (16:30-20:30).

## AITORTZA JASO DUTENAK

### 25 ODOL EMATE

- Beatriz Arana Arabaolaza
- Mikel Aranburu Urrutia
- Iokin Astigarraga Balza de Vallejo
- Daniel Enparanza Iturbe
- Mari Carmen Galdos Urzelai
- Santiago Igartua Galdos
- Roberto Irigoien Regueiro
- Jose Luis Mendiaratz Jimenez
- Mikel Sologaitoa Biain
- Miren Urzelai Rodríguez
- Miren Urkiola Serrano
- Olatz Zabaleta Elorza
- Urtzi Zuazubiskar Aranburu

### 40 ODOL EMATE

- Esther Arza Monreal
- Eba Elorza Altube

### 50 ODOL EMATE

- German Beitia Barrera
- Jose Luis García Mateo
- Emilio Santos Delgado
- Felix Ugarte Uribetxeberria

### 75 ODOL EMATE

- Rafael Igartua Madinabeitia

### 100 ODOL EMATE

- Jon Aizpeurrutia Alzelai
- Jabier Etxeberria Agiriano

### » JABIER ETXEBERRIA

#### 100 ODOL EMATE

lazgo eta aurtengo emanaldiak gehituta, dagoeneko 105 aldiz eman dut odola.



21 urterekin hasiko nintzen, baina lehen urteetan gutxitan eman nuen. Gerora, bai, oso konstantea izan naiz, eta urte gehienetan lau aldiz etortzen naiz. Oraingoz ezin da artifizialki egin odola eta, beraz, animatzen dut jendea odola ematera. Gainera, orain asko hobetu da; lehen ilaran egon behar izaten zan, baina orain, txanda hartuta, ordubeteen egiten da.

### » ESTHER ARZA

#### 40 ODOL EMATE

Oker ez banago, 42 aldiz eman dut odola dagoeneko. Alaba gaixotu zenean hiru urte pasa nituen odola



eman gabe, baina gainerakoan nahikoa konstantea izan naiz, eta urtean hiru aldiz eman izan dut. Senarrak eta alabak ere ematen dute. Egia esan, ez dut sekula arazorik izan eta, gainera, odola eman ondoren gustora ateratzen naiz, pozik. Beraz, animatzen dut jendea odola ematera, beharrezkoa delako eta, azken batean, ordubeteko kontua izaten delako

**Catalana Occidente**

**Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

**Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:**

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea  
638 16 79 84  
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

**PINTURAS**  
**URBIA**  
**MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



# OÑATIKO ADIKZIOEN UDAL PLANA

**[inkesta]**

inkesta bete ondoren leku hauetan utzi:

**Kiroldegian  
Gizarte Zerbitzuetan  
Kultur-etxean**

*\*nahiago baduzu inkesta Udaleko web orrian eskuragarri*

## IDENTIFIKAZIO DATUAK:

**Sexua:**

**Adina:**

Adin txikikoen guraso al zara?.....

Zein adin?.....



**OÑATI**  
dabilen herria

	Alkoholaren kasuan		Tabakoaren kasuan		Kalamuaren kasuan		Psikofarmakoaren kasuan		Bideojokuak apustuak / internet	
Adin txikikoen kontsumoak kezkatzen zaitu?	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Eta helduek egiten dituzten kontsumoak?	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Kontsumitzeko ohitura ba al daukazu?	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ

**NOIZ / ZENBAT / NON KONTSUMITZEN DUZU:**

	NOIZ?	ZENBAT?				NON?		ADIN TXIKIKOEN AURREAN?
		Inoiz ez	1-2 a.u.	3-5 a.u.	5+ a.u.	KALEAN	BAI / EZ	
ALKOHOLA (a.u. = alkohol unitate)	Astegunetan					KALEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
						ETXEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
	Asteburuetan					KALEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
						ETXEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
	Festa edo egun puntaletan					KALEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
						ETXEAN	BAI / EZ	BAI / EZ

	NOIZ?	ZENBAT?					NON?		ADIN TXIKIKOEN AURREAN?
		1-2	3-5	6-9	10-19	+20	KALEAN	BAI / EZ	
TABAKOA	Astegunetan						KALEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
							ETXEAN/LANEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
	Asteburuetan						KALEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
							ETXEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
	Festa edo egun puntaletan						KALEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
							ETXEAN	BAI / EZ	BAI / EZ

	NOIZ?	ZENBAT?			NON?		ADIN TXIKIKOEN AURREAN?
		1-2	3-5	+5	KALEAN	BAI / EZ	
KALAMUA	Astegunetan				KALEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
					ETXEAN/LANEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
	Asteburuetan				KALEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
					ETXEAN/LANEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
	Festa edo egun puntaletan				KALEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
					ETXEAN/LANEAN	BAI / EZ	BAI / EZ

	NOIZ?	ZENBAT?			NON?		ADIN TXIKIKOEN AURREAN?
					ETXEAN	BAI / EZ	
PSIKOFARMAKOAK	Egunero				ETXEAN	BAI / EZ	BAI / EZ
	Momentu puntaletan (automedikazio gisara)				KALEAN	BAI / EZ	BAI / EZ

**BIDEOJOKUETAN, SARE SOZIALETAN EDO APUSTUAK EGITEKO OHITURA BADUZU?**

ZENBAT ALDIZ	Egunero	Astean 2-3 aldiz	Asteburuetan	Inoiz ez
BIDEOJOKUETAN				
APUSTUAK				

SARE SOZIALAK (whatsapp, instagram, facebook, youtube.)	1-2 ordu	3-5 ordu	5 ordu baino gehiago	Ez naiz konektatzen

**ZURE USTEZ, HELDUEK EGITEN DUTEN KONTSUMOAK ZER NEURRITAN ERAGITEN DU NERABEENGAN?**

EZER EZ						ASKO
0	1	2	3	4	5	



0	1	2	3	4	5	
NADA		MUCHO				

**¿ EN QUÉ MEDIDA CREE QUE EL CONSUMO QUE HACEN LOS ADULTOS AFECTA A LOS ADOLESCENTES?**

REDES SOCIALES (facebook, youtube, whatsapp, instagram)	1-2 horas	3-5 horas	+5 horas	No me conecta

Nº DE VECES	Todos los días	2-3 veces a la semana	Fines de semana	Nunca
VIDEOJUEGOS				
APUESTAS				

**¿ TIENES COSTUMBRE DE JUGAR EN VIDEOJUEGOS, REDES SOCIALES O APUESTAS?**

PSICOFÁRMACOS	¿ CUÁNDO?	¿ CUÁNTO?	¿ DÓNDE?	¿ DELANTE DE MENORES DE EDAD?
	En momentos puntuales (como automedicación)			
	Todos los días		EN LA CALLE	SI / NO
			EN CASA	SI / NO

CANNABIS	¿ CUÁNDO?	¿ CUÁNTO?	¿ DÓNDE?	¿ DELANTE DE MENORES DE EDAD?	Entre semana	EN LA CALLE	SI / NO
					Fin de semana	EN LA CALLE	SI / NO
					Fiestas o días puntuales	CASA/ TRABAJO	SI / NO
						EN LA CALLE	SI / NO

TABACO	¿ CUÁNDO?	¿ CUÁNTO?	¿ DÓNDE?	¿ DELANTE DE MENORES DE EDAD?	Entre semana	EN LA CALLE	SI / NO
					Fin de semana	EN LA CALLE	SI / NO
					Fiestas o días puntuales	EN LA CALLE	SI / NO
						EN LA CALLE	SI / NO

ALCOHOL (u.a. = unidad de alcohol)	¿ CUÁNDO?	¿ CUÁNTO?	¿ DÓNDE?	¿ DELANTE DE MENORES DE EDAD?	Entre semana	EN LA CALLE	SI / NO
					Fin de semana	EN LA CALLE	SI / NO
					Fiestas o días puntuales	EN LA CALLE	SI / NO
						EN LA CALLE	SI / NO

**CUÁNDO / CUÁNTO / DÓNDE CONSUMES:**

¿ Tienes hábito de consumo?	SI	NO	SI	NO	SI	NO	SI	NO	SI	NO	SI	NO			
¿ Los consumos que hacen los adultos?	SI	NO	SI	NO	SI	NO	SI	NO	SI	NO	SI	NO			
¿ Le preocupa el consumo de menores?	SI	NO	SI	NO	SI	NO	SI	NO	SI	NO	SI	NO			
	En el caso del alcohol			En el caso del tabaco			En el caso del cannabis			En el caso de los psicofármacos			Videojuegos apuestas / internet		

dablen herria

ONATI



**DATOS IDENTIFICATIVOS:**

**Sexo:**

**Edad:**

.....? Eres padre o madre de menores?

.....? Que edad tienen?

*\*si lo prefieres tienes la encuesta a tu disposición en la página web del Ayuntamiento*

**Polideportivo  
Servicios Sociales  
Casa de cultura**

Una vez rellenada la encuesta la podrás depositar en:

**[encuesta]**

# PLAN MUNICIPAL DE ADICCIONES

**ALDAKETA** EUSKADI ETORBIDEKO LAMIAK ILEAPAINDEGIAN

# Bide berria



Amaia eta Miren orain arteko jabeak, Mónica erdian daukatela.

la lau hamarkadako ibilbidea eginda, merezitako erretiroa hartu berri dute Amaia eta Miren, Lamiak ileapaindegiko arduradunek. Mónica Toro izango da aurrerantzean, negozioaren jabe berria. Ilusioz eta gogoz ekingo dio proiektu berriari. **Lamiak By Chic Estilistak** martxan da!

## Ezertan hasi aurretik. Aurkeztu zaitez mesedez. Nor da Mónica?

Errioxan jaiotakoa naiz. Duela sei urte etorri nintzen Oñatira eta orduz geroztik, Arrasateko ileapaindegi bat eramaten ibili naiz.

Ez naiz berria mundu honetan, izan ere, 16 urte daukadanez nabil ileapain-tzaile gisa. Bizitza erdia daramat ofizio honetan. Hasiera-hasieratik ibili naiz formakuntzari garrantzia asko eman dioten markekin lanean, eta horrek, zuzenean

eragiten du bezeroarengan. Aholkularitza eta zaintza pertsonalizatua dira eskaini nahi ditudan zerbitzu nagusiak. Pertsona bakoitza bakarra eta ezberdina da. Eta era berezian zaindu nahi ditut guztiak.

## Nola sortu zitzaizun Lamiak hartzeko aukera?

Bazkideetako batek erretiroa hartu zuela esan zidaten eta hasiera batean Arrasaten jarraituko nuela erabaki arren, familia izateak, nire ikuspuntua erabat aldatu

zuen. Etxetik gertuago egoteko beharra sentitzen nuen eta orduan hasi nintzen aukera berriz ere aztertzen.

Orain arteko jabe izan den Mirenen erretiroa izan da proiektu honetan sartzeko gakoa. Ileapaindegiak tradizio eta ibilbide handia dauka Oñatin, eta negozioarekin jarraituko zukeen profesional baten bila zenbiltzala jakin nuenean, beraiekin harremanetan jarri nintzen.

Eta egiari zor, nahiko erraza izan da dena. Asko eskertzen diet bie martxan dagoen negozio bat nire eskuetan uztea. Egin duten ibilbideagatik zoriondu nahi ditut eta aurrerantzean, ea nirea ere beraiena bezain oparoa den.

*«Produktu naturalak eta organikoak erabiliko ditugu. Ingurugiroa ahalik eta gutxien kaltetzeko»*

## Zer eskainiko du ileapaindegi berriak?

Lehenik eta behin ileapaindegi mixtoa izango dela nabarmendu nahiko nuke. Emakumeek zein gizakumeek izango dute gurean ilea moztu eta zaintzeko aukera. Azken hauendako gainera, espazio propio bat egongo da. Bizartegi eta guzti.

Bestelakoan, zerbitzu naturalen erabileran oinarritzen dugu gure egunerokoa. Ileapaindegi batean produktu asko erabiltzen dira eta hauek naturalak eta ingurugiroarekiko kaltegarriak ez izatea oso garrantzitsua da.

Ilea moztutuko dugu, kolorea landuko dugu eta buru eta larru-azala behar bezala zaintzeko azken teknologia eskainiko diegu bezeroei. Kolorazioan esaterako, %100ean organikoak diren produktuak erabiliko ditugu.

## Besterik gehitu nahi duzu?

Herritarrei gugana gerturatzeko gonbita gingo nieke. Martxoan zehar, %10eko irekiera deskontua aplikatuko dugu. Lamiak berriko ateak zabalik dituzue!



By Chic Estilistak



943 78 20 50



Euskadi Etorbidea 15  
20560 OÑATI



Lamiak by Chic Estilistak



@lamiakonate







Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Esker onez

### Lamiak ile-apaindegiko langileak

Libilian osatzen da bidea, eta gurea ia berrogei urtera iritsi da. Zenbat bezero izan ditugun gurean kontu ezina zaigu, baina zenbatzerik ere ez dugu gura: ile mozte, orrazte eta tindatze bakoitza izan da bakarra. Gu horrek asko bete gaitu. Eskerrik asko, beraz, bihotz-bihotzez, gurean atea zeharkatzea erabaki duzuen guzti-guztiori. Amaitzeko, zortzerik onena opa diogu gure negozioa hartuko duen Monikari. Espero dugu guk beste goza dezala eta *Lamiak* proiektuak aurrera jarraitzea.

## Eukaliptoen kontrako mozioa

### Paula Ibabe eta Xabi Urbina, STHren izenean

Otsailean udal gobernuak onartu zuen eukaliptoen kontrako mozioarekin bat egin genuen. Garbi duguna da eukalipto debekatu egin behar dela, espezie bezala sortzen dituen kalteak ugariak baitira: lurra pobretzen du, dituen taninoek urak kutsatzen dituzte, suteak sortzeko aukerak handitzen ditu, biodibertsitatean galera nabarmenak dakartza, landare inbaditzaileen ezaugarriak ditu, etab.

Kontziente gara, bestalde, debeku honek, ondorio partzialdun erreforma bezala, ez dituela egungo basogintzaren kontraesanak konponduko, izan ere, zuhaitz espezie batetik bestera diferentziak dauden arren, eredia bera jarri behar baita ezbaian: monolaborantza, kanpoko espezieak, sail osoen bat-bateko mozketak (asko gainera toki aldapatsuetan)...

Ondorioak garbiak dira: mendeetan gure arbasoek zaindutako lurren galera, horren eraginez gero eta osasun eskasagoa duten eta gaixotasunekiko zaurgarriagoak diren landaketak, eta biodibertsitatearen pobretze orokorra.

Baina ez gara begirada horretan geratzen. Basogintza ereduaren kritika, izan ere, dituen aspektu teknikoetatik haratago ikusten dugu. Egia den arren, bolo-bolo esaten den bezala "hemen pinuak diru asko ekarri duela", ezin

esan genezake onura sozial parekideak ekartzen dituenik. Hasteko, etekinak ez direlako sozializatzen, garai batean jabetza komunalekoak izan ziren lurra esku pribatueta amaitu baitute epe motzera begirako etekin indibidualak handitzeko merkatu testuinguruan. Bigarrenik, belaunaldien arteko erlazio zeharo desorekatuak bultzatzen ditu, ondare natural (eta kultural) diren gure baso lurra ondorengoei egoera eskasagoan utziz. Eta azkenik, enpresa handiak lurra erosten dabilzalako, ondoren diru publikoz lagunduta negozioa egiteko. Logika horretan zenbait lur jabe txikiren burugogortasun kontserbadoreak kapital handienaren "txokeko batailoi" funtzioa betetzen du.

2/2006 Legearen 17. artikulua udalerriek "mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea" bermatzen duenez, espero dugu udalak abagune juridiko hori arduraz eta tinkotasunez erabiltzea.

## Filosofatzen

### Marijo Etxegoien Arzuaga, EAJ udal-taldea

Oihoko izaten da urte berria hasi, eta nork bere buruari urte horretarako erronkak eta helburuak jartzea. Esango nuke askotarikoak izan ohi direla; ezagunena, seguruenez, ariketa fisikoa egiten hasteko xedea da.

Filosofiaren historiara gerturatzea izan da aurtun nire buruari jarritako erronketako bat, historian zehar, filosofoek eta pentsalariak agertu dituzten ideia eta teoretara hurbiltzea. Berezi, emakume filosofoengana gerturatzea. Izan ere, eremu horretan ere emakume filosofoak egon dira, baina "ezkutatuta" egon dira; bai haiek, bai haien mezu, ezagutza eta jakituria, bai haiek gizarteari egindako ekarpena.

Horrela, besteen artean nabarmentzekoak dira: Alejandriako Hipatia (370-415); hark adierazi zuen "modu okerrean pentsatzea, ez pentsatzea baino hobea da". Marie Le Jars de Gournay (1565-1645), ber hitzak dira "Hertsiki esanda, gizakia ez da ez maskulinoa ez femeninoa (...) funtsezko ezaugarri bakarra



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)

adimena izatean datza". Olympe de Gouges (1748-1793) arena da "Emakumea, esnatu, aitortu zure eskubideak" esaldia. Mary Wollstonecraft (1759-1797) ere ezin ahaztu: "Ez dut nahi emakumeek gizonen gaineko boterea izatea, beren buruaren gainekoa baizik"; eta noski, Simone de Beauvoir (1908-1986) "Ez da emakume jaiotzen, emakume izatera iristen da".

Egunerokotasunean, maila apalagoan, etxeko giroan eta lagunartean ere egon dira "filosofa" handiak; hain zuzen ere, amak, amamak, izebak, amaginarrebak. Nork ez ditu, bada, gogorutzen haien esaerak eta jokabideak, bizi-esperientzian oinarritutakoak eta jakinduriaz jantzitakoak? Geurean, askotan, amak mezu hau helarazi digu: "Ez bete bizitza urteekin, bete urteak bizitzarekin!". Laurogeita hamaika urte bete zituen abuztuan; badaki zertaz ari den.

Zoritarrez, urteak aurrera egin badute ere, emakume filosofen mezuak behar-beharrezkoak dira oraindik ere. Beraz, emakume, iratzarri, pentsatu, aldarrikatu, balioan jarri eta defendatu zeure eskubideak! Izan zeure bizitzaren jabe! Eta, ez ahaztu, bete zeure urteak bizitzarekin!



### Musika Eskolako ikasleak Andoaingo piano jaialdian

Otsailaren 12-13an Andoaingo Bastero kulturgunean ospatu zen XVII. Piano Jaialdian José de Azpiazu musika eskolako zortzi ikaslek (Nahia Aldasoro, Joan Díaz, Aihoa Dorado, Irati Egaña, Telma Miguel, Sara Txintxurreta, June Urzelai eta Irati Atxa) parte hartu zuten. Urrezko bi domina, zilarrezko bost eta brontzezko bat eskuratu zituzten, eta oso pozik itzuli ziren bizi izandako esperientziarekin. Anabel Henao eta Ainhoa Galdos irakasleekin daude argazkian, lortutako dominak kolkoan dituztela.

### Pake Lekuko batzar nagusia

Martxoaren 25ean izango da, Santa Ana aretoan, 17:00etan.

# MGEP

MONDRAGON UNIBERTSITATEA POLITEKNIKOA  
HOSE MARIA ARAUNTZIBARRETA KIDEETIK

## Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

### GEROA EREIN

Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldiak
•Automatizazioa eta Robotika Industriala	Martxoak 24 18:00
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	Martxoak 24 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Martxoak 23 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa	Martxoak 23 18:00
•Mexatronika Industriala	Martxoak 23 18:00

[www.mondragon.edu/lanbideheziketa](http://www.mondragon.edu/lanbideheziketa)  
[orientazio.lhm@mondragon.edu](mailto:orientazio.lhm@mondragon.edu)  
 664 298 704 - 664 298 683



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

## UDALEKU IREKIAK

Aurtengo Udalekuei ere maitasunez eta gogoz helduko diegu. Familien kontziliazio egoeran laguntzeko eta haurrei me-rezitako uztaila eskaintzeko. Oinarrian landuko ditugun balioak euskara, tratu onak, hezkidetzaz, emozioak, natura eta kalea gureganatzearen eta errespetatzearen garrantzia, parte hartzea, eta aniztasuna izango dira. Guztia Jolasa oinarri hartuta. Beti ere momentuko segurtasun eta higiene irizpideak aintzat hartuko ditugu. beharrezko material eta baliabideak eskura izanda. Begirale eta koordinatzaile lantaldeak COVID-19aren gaineko beharrezko formazioa jasoko dugu, eta beharrezkoa diren protokolo eta errutinak barneratuko eta familiei helaraziko dizkiegu. Egungo egoera kontuan izanda, momentuz aurtan ez dugu umeen izen ematean kopurua murrizteko beharrik ikusten. Dena den, agian aurrerago, osasun egoerak behartuta, beste erabaki batzuk hartu beharrean izango gara. Espero ezetz!

**NOIZ:** Ekainaren 27tik uztailaren 22ra. **ORDUTEGIA:** Zaintza zerbitzua 08:15 -10:00, Udaleku irekiak 10:00 – 13:00, **ADINA:** 2010-2018an jaiotakoak (biak barne). **TOKIA:** Herriko gune ezberdinetan. **MATRIKULA:** Udalekuak, lehenengo haurra 72€ , bigarrena 62 € gehiago, hirugarrena 52 € gehiago, laugarrenetik aurrera doan. Zaintza zerbitzuagatik: lehenengo haurra 30€, Bigarrena 20€ gehiago, Hirugarrena 10€ gehiago, laugarrenetik aurrera doan.

**HAURREN IZENA EMATEKO EPEA:** Martxoaren 21eko goizeko 09:00etatik apirilaren 1eko arratsaldeko 19:00ak arte.

**IZENA EMATEKO MODUA:** Online; [www.onati.eus](http://www.onati.eus) helbidean. Behin ordainketa eginda, online izenematea bete behar da, umeen arduradun baten nortasun agiriaren kopia eta aipatutako ordainketa agiria gehitu behar da. Izen emateko epean 688786659 telefonoan eta Ludotekan (09:00-12:00 / 17:00-19:00) laguntza zerbitzua eskainiko da online sisteman arazoak dauzkatenentzako. **EZ DA EPEZ KANPOKO IZEN EMATERIK ONARTUKO.**

### - UDALEKU IREKIEN BEGIRALEEN KONTRATAZIOA -

**IZENA EMATEKO EPEA:** Apirilaren 5etik apirilaren 13ra. **LEKUA:** Oñatiko Udaleko Zerbitzu Telematikoetan, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Posta bulego batean. HAZko ordutegia: 07.30-15.30 (aurrez txanda hartu behar da). **HEZITZAILAILEEN FORMAZIO SAIOAK:** Ekainaren 4 eta 11an izango dira. Derrigorra izango da formazio saioetara etortzea. **BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:** Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailean, Gaztelekuan edo [www.onati.eus](http://www.onati.eus). **EZ DA EPEZ KANPOKO IZEN EMATERIK ONARTUKO.**

### - ARTE UDALEKUAK -

Aurtan, hamargarrenez, Arte udalekuak antolatuko ditu Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak. Arte Udalekuetan gaztetxoek marrazkigintzan, eskulturan, margogintzan eta abar aritzeko aukera izango dute. **NOIZ:** Ekainaren 27tik uztailaren 27ra. **ORDUTEGIA:** 10.00-13.00 **ADINA:** LH3tik DBH3ra, biak barne **TOKIA:** Eltzian. **MATRIKULA:** 72 €, bigarrena 62 €, hirugarrena 52 €, laugarrenetik aurrera doan. **HAURREN IZENA EMATEKO EPEA:** Martxoaren 21etik 25era (biak barne). **PLAZA MUGATUAK EGONGO DIRA,** izenemate gehiago baleude plazak baino zozketa egingo da, zozketaren emaitzak martxoaren 28an argitaratuko lirateke. **IZENA EMATEKO MODUA:** Online; [www.onati.eus](http://www.onati.eus) helbidean. Behin ordainketa eginda, online izenematea bete behar da, umeen arduradun baten nortasun agiriaren kopia eta aipatutako ordainketa agiria gehitu behar da. **EZ DA EPEZ KANPOKO IZEN EMATERIK ONARTUKO.**

### - ARTE UDALEKUEN BEGIRALEEN KONTRATAZIOA -

**BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:** Oñatiko Gaztelekuan eta Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailean.

### - GAZTE ELKARTE ETA SORMEN DIRULAGUNTZAK -

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailak, aurtan ere, gazte elkarteak eta sormena bultzatzea helburu duten diru-laguntzak jarriko ditu martxan martxoan. Diru-laguntzak jarraian zerrendatzen diren ataletan oinarrituko dira: Urteko programaketa – Elkartearen sustapena, Kultur sormena eta hedapena (diskak, audio-bisualak, ...), ez-ohiko jarduerak. Martxoaren erdialdetik aurrera egongo da eskatzea. Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo [www.onati.eus](http://www.onati.eus)

### - GAZTE EMANTZIPAZIORAKO DIRULAGUNTZAK -

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea helburu duten diru-laguntzak martxan jarri nahi ditu aurtan ere. Dena den, diru-laguntza lerro honen inguruan egiten ari den hausnarketa dela eta, apirilaren hasieran jarriko dira martxan.



# Heriotzaren greba



**'Bizitza ! Ez zenuen hasierarik izan behar, baina hasi zinenez, ez zenuke bukaerarik eduki behar'.**

Baltasar Gracian-ek XVII. mendean idatzitako esaldi potentea benetan! Edonork bere barnean askotan bere gorputzaren hilezkortasunari buruzko desio sakon hori bururatu eta hausnartutakoa.

Jose Saramagok, Nobel Saridunak, bost hitz hauekin hasten du 'Las intermitencias de la muerte' liburua :

**'Hurrengo egunetik ez zen inor hil'.** Heriotzak berak zioen arrazoia: **'Geldituko naiz. Greba mugagabea egitea erabakitzen dut'.**

Telebista, irrati eta tertulietatik ustekabeko berri zoragarria berehalaxe zabaldu zen. Jendea saltoka, txilioka, dantzan, emozioz beterik jarri zen. **'Azkenean mundu**



**Bittor Madina**

**honetan hilezkortasuna (hilezin bihurtu) nagusituko zaio eguneroko tristurari'**, oihukatzen zuten. Baina zalantza ere nagusitu zen. **'Egia ote? Iraungo al du Heriotzaren hitzak? Historian, greba gehienak bukatu dira agindutakoa lortu gabe'.**

Lehenengo gauerdiko hamabietatik aurrera, hiltzorian zeuden guztiak, gaixo terminalak, gaitz sendaezinak zeuzkatenak, bihotzekoak jotakoak bizirik jarraitzen zuten. Hurrengo asteetan eta hilabeteetan heriotzak atsedenean jarraitu zuen. Ez zen inor hiltzen. Gizartea pozez gainezka bizi zen. **'Gure Lur honetan betirako bizitzaren bidean gaude'**, oihu nagusia zen.

Baina gure gizarte honetan, alaitasunak negarra dakar berarekin, baietzak ukazioa eta patxadatasunak urduritasuna. Bi urtera, egoera iraultzailearen (ez hiltzearena) jarraipenak galderak, kezkak, ezadostasunak, protestak sortu zituen :

- Ehorztetxe edo funerariak lanik gabe aurkitu ziren.
- Klinikak eta ospitale guztiak klase askotako gaitzak jotako

gaixoekin kolapsatuta.

- Elizaren sinismen nagusia, hau da, hil ondorengo berpiztearena, ezerezean gelditzen zen. Berpizteko hil beharra dago. Hala ez bada, Eliza guztien etorkizunak ez du zentzurik izango.

- Sufrimenduarekin zer? Egoera berrian hilezintasun horren eternitateak ikaragarritzko izua eta trauma eragiten zion sufritzen zionari. Osasunez ondo bizi zenak ere bazuen zertan kezkatzerik:

**'Hilezkortasunak goxatuko ote dizkit zahartzaroaren ajeak?'. 'Gaitz baten menpe erortzen banaiz, gaitz horrekin betiko?'. 'Betikotasunak, ze tortura!'**

- Urteen poderioz, heriotzaren grebaren kontrakoak gehitu eta bi talde nagusien arteko iskanbilak gehitu ziren. Ez zegoen pakerik. Erabateko nahastea, kaosa zabaldu zen gizartean. Azkenean, heriotzak greba egiteari utzi zion eta denen onerako gomendio edo kontseilu hau txertatu zuen bakoitzaren bihotzean:

**'Onartu itzazue bizitza eta heriotza Naturan eta egunerokotasunean dituzuen eta datozkizuen moduan. Ez dago eta ez duzue beste biderik'.**

 **ZURICH**  
M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela  
Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**  
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...  
DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA  
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO  
OLAKUA 12 B 4 ez. - 20560 ONATI - GIPUZKOA  
695 78 91 04 - 943 04 47 77

 **JUANJE MARGOAK**  
627 818 247

 **ARKITEKTURA**  
Baserrien eraberritzeak • Isolatzailea fatxadan • Igogailuak  
tel: 677 31 20 57 \* amaiigartua@gmail.com

# Feminismoa, sozialismoa, ekologismoa eta independentzia aztergai

## ERNAIren JARDUNALDIETAN

Martxoarekin batera Ernaik, Ezker Abertzaleko gazte antolakundeak antolatutako jardunaldiak izango dira Oñatin, "burua astintzeko eta burua janzteko" helburuarekin. Lau gai edo oinarri nagusiren bueltan burutuko dira jardunaldiak. Hasteko, martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) berotzeko asmoz, hausnarketa eta eztabaida saio bat egingo da bilgune feministaren eskutik **'Bizitza erdigunean jartzea burujabetza kontua da'** gaia hizpide hartuta. Martxoaren 2an izango da saioa, Antixena gaztetxean (19:00). "Bizitza erdigunean jartzearen eta honetarako burujabeak izanez, gure bizitzen inguruan erabakiak hartzeko beharraz mintzatuko dira, sistema kapitalista eta heteropatriarkala gaindituz" aurreratu dute antolatzaileek.

Feminismoaren auzia jorratu ondoren, **independentziaren beharraz eta zergatiaz** jardungo dute martxoaren 16an, kultur etxean (19:00). 'Independentzia ipar, estatu propioa zertarako?' izenburupean, Iratxe Delgado, Floren Aoiz eta Igor Arroyo ariko dira. "Lehenak, Independentzia, etorkizunik gabeko belaunaldi deitu gaituztenontzako irtenbide izan daitekeela azalduko digu. Arroyo aldiz, hazkunde mugagabearen mitoa zapuztuta dagoela ikusirik, 'Zein izango da aterabidea? Desjabetza berriak ala ondasunaren birbanaketa?' galderei erantzuten saiatuko da. Bestetik, Espainia porrot egin duen estatu egitasmoa da, etengabeko krisian murgilduta dagoelako eta Frantzia gainbeheran dagoen estatu koloniala, kanpoan nahiz etxe barruan. Florenek, hauen autoritarismoaren aurrean

INDEPENDENTZIA · SOZIALISMOA · FEMINISMOA

### JARDUNALDIAK

<p><b>Martxoak 2 - 19:00</b>  <b>Bizitzak erdigunean jartzea burujabetza kontua da.</b>          Bilgune Feminista          Antixenako Gaztetxea</p>	<p><b>Martxoak 16 - 19:00</b>  <b>Independentzia ipar, estatu propioa zertarako?</b>          Floren Aoiz          Iratxe Delgado          Igor Arroyo          Kultur Etxea</p>
<p><b>Martxoak 23 - 19:00</b>  <b>Dominazioaren erro historikoak: neolitikotik kapitalismora.</b>          Aimar Uribesalgo          Antixenako Gaztetxea</p>	<p><b>Martxoak 30 - 19:00</b>  <b>Krisi ekologikoaren aurrean zer?</b>          Mikel Otero          Leire Astigarraga          Kultur Etxea</p>





Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

✉ [etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

zer egin dezakegun eta gure bidea hartzeko premia hitz egingo digu" azaldu dute Ernaiko kideek.

Hirugarren saioan Euskal Herri sozialista baten beharra, **klaseen abolizioa** eta gizarte berdin eta zapaldurik gabekoaren beharra azpimarratuko dute martxoaren 23an Antixena Gaztetxean (19:00), Aimar Uribesalgok 'Dominazioaren erro historikoak: neolitikotik kapitalismora' izenburupean emango duen hitzaldian. "Dominazio sistema ezberdinez eta hauek izandako eboluzioez jardungo da historiako garai ugari aztertuz".

Jardunaldiekin amaitzeko, **ekologismoaren** borrokaren garrantzia azpimarratu nahi du Ernaik. 'Krisi ekologikoaren aurrean zer?' izenburupean, Leire Astigarragak eta Mikel Oterok berba egingo dute martxoaren 29an (kultur etxean, 19:00). "Larrialdi klimatikoa, krisi ekologiko sakon baten adierazle nagusienetakoa da, baina ez bakarria. Hausnarketa orokorretatik abiatuta, Euskal Herriko egoerari begira jarriko gara eta behar ditugun eraldaketei buruz hitz egingo digute, trantsizio energetikoaren garrantzia azpimarratuz" azaldu dute antolatzaileek. Oñatiko Ernaik herritar guztiak gonbidatzen ditu jardunaldiotan parte hartzera, "Euskal Herria askatzeko beharra dugulako eta garaipena gurea delako".

## 'ZUTIK' Gazte Martxa

Covid-ak eragindako bi urteko etenaren ondoren, aurten ohiko formatuan egingo da Euskal Herriko gazte independentisten topaleku izan ohi den udaberriko ekimena. **'BostEHun eta zutik!'** lelopean egingo da apirilaren 14tik 17ra. Zugarramurditik abiatuko da gazte martxa, eta Erratzun geldialdia egin ostean, Elizondora iritsiko da eta bertan burutuko da egitarau politiko eta musikala. Euskal Herriko txoko ezberdinetako gazteak bilduko dira bertan, eta hitzaldiz, tailerrez eta musikaz betetako jardunaldiak izango dira. Guztira 28 musika taldek joko dute bertan. Euskal Errepublika sozialiste, feminista eta euskalduna eraikitzeke gazterien grina irudikatzea da ekimenaren helburua.



## Donostiako Alde Zaharreko istiluen harira auziperatutako gazteen aldeko elkartasun eguna antolatu dute

» Auziperatutako gazte oñatiarrak 4 urteko kartzela zigor eskariari aurre egin behar dio

2020ko abenduaren 14an manifestazioa egin zen Donostiako Alde Zaharrean 'Auzoak Defendatu. Errepresiorik ez!' lelopean. Pandemiaren harira

ezarritako segurtasun neurriak betearazte aldera Alde Zaharra "militarizatu" izana eta poliziak erakutsitako "jokaera bidegabea eta inpunitatea" salatzea zen manifestazioaren xedea. Bertan 400 bat lagun elkartu ziren. Manifestazio ostean liskarrak lehertu ziren eta, tartean, gazte oñatiar bat atxilotu zuten. Ustez, Ertzantzaren jarrerari begira zegoen. Komisaldegian igaro zuen gaua.

Gertakari haien ondorioz 16 gazte izan ziren auziperatuak, eta oñatiarraren kasuan 4 urteko kartzela zigor eskaerari aurre egin behar dio. Bi delitu leporatzen dizkio Ertzaintzak: desordena publikoa eta autoritatearen aurkako atentatua.

Gertakari horien aurrean eta ekarriko dituen gastu judizialei aurre egiteko, 'Parte Zaharra Aske' plataformak babes kanpaina bat abiatu zuen iaz. Oñatin ere eratu da herriko gazte auziperatuaren aldeko plataforma, eta datozen hilabeteetan martxan izango den kanpaina antolatu du, gazteari babesa helarazteko, eta "gazteen aurkako errepresioa ozen salatzeko eta etor daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko diru poltsa bat osatzeko asmoz". Plataformako kideek adierazi dutenez, atxilotetaren uneko irudiak sarean daude, "eta horiek ikusita akusazioaren errelatoa oinarri ahulekoa da".

EKINTZA-EGITARAUA:

### • HITZALDI-TERTULIA ETA KONTZERTUA

Martxoak 17 / Gaztetxean, 18:00

'Parte Zaharra aske!' izenburupean, oñatiar auziperatua, abokatua eta 'Parte Zaharra Aske' plataformako kide bat ariko dira. Ondoren, *Ekiñe Casadoren* kontzertua.

### • ELKARTASUN EGUNA Martxoak 19

'Parte Zaharra aske!' lelopean, bazkaria (gaztetxean, 14:30), elkarretaratzea (Foruen plazan, 18:30) eta kontzertuak (Gaztetxean, 20:00) izango dira, *Rebel Noise*, *Lee Kore*, *Lehen lerroa* eta *Lizartxo* taldeekin. Sarrera, 5€ (3€ langabetuak).

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)



Jaione San Miguel Ugarte

**MAPFRE**

OÑATI







**EMAKUMEEN FUTBOLA** OÑATIKO MOMENTUKO ERRADIOGRAFIA

# Gora bidean

Harrobiko taldeetan sekula baino neska gehiago dabil, eta bertan hazitako bost jokalaririk Realean eta Eibarren ari dira. Emakumeen futboleko koordinatzailearekin hitz egin dugu.

Emakumezkoen futbola ez da berria Oñatin. Orain dela 30 urte sortu zen aurreneko taldea Aloña Mendin, 92/93 denboraldian, eta handik lau urtera Maria Azpitarte Espainiako txapelkun izatera iritsi zen, 16 urte azpikoen Euskadiko selekzioarekin.

Indartsu hasi bazen ere, gerora ibilbide gorabeheratsua izan du, argi-ilunak tartekatuz, baina azken urteotan berriz ere gora bidean doa, inoiz baino sendoago, ziurrenera, bai kopuruz (Alebin mailan bi talde ditu Aloña Mendik, sekula gertatu ez dena) eta baita kalitatez ere (aurten beste hiru jokalaririk egin dute Reala eta Eibar taldeetarako jauzia, aurrez Ane Egaña, Elene Guridik eta Eider Egañak urratutako bidea jarraituz).

Datu esanguratsuak dira, duda barik, lana ondo egiten ari den seinale, eta bide horri eustea da orain erronka, oinarri sendoak finkatu eta, poliki poliki, emakumeen futbola egonkortu dadin geurean ere.

## EGITURA INDARTU

Ildo horretan urrats inportantea eman zuen klubak orain dela bost urte. Futbol sailaren egitura birplanteatu eta emakumeen futboleko koordinatzaile figura sortzea erabaki zuen, besteak beste. "Ordura arte emakumeen futbola ez zegoen ordezkatuta direktiban, eta orain, aldiz, neu egoten naiz asteleheneroko bileretan, gure taldeen gorabeherak eta beharrak mahai gaineratzen" azaldu digu Nerea Uriartek (Oñati, 1996), nesken futboleko koordinatzaileak. "Taldea ezberdinetako entrenatzaileen arteko komunikazioa ere erraztu egin da horrela,

*«Oñatiko neskek futbolari zer eskatzen dioten ulertzea da gakoa»*

## **NEREA URIARTE LOSADA**

FUTBOL SAILEKO KOORDINATZAILEA

## **HARROBIA**

Alebin mailan talde bi eta Infantil nahiz Kadetetan talde bana ditu Aloña Mendik

-

## **NAGUSIAK**

Nagusien mailan Leintz-Arizmendi taldearekin bat eginda ari da Aloña Mendi, eta bi talde dituzte, bata Gorengo mailan eta bestea Ohorezkoan

eta planifikazioak ere elkarrekin egiten ditugu, Iker Egañaren laguntzarekin".

Pozik eta itxaropentsu dago Uriarte harrobiko taldeetan daukaten neska kopurua ikusita, baina nahiago du zuhurtziaz berba egin. "Egia da, bai, Alebin mailan ez dugu sekula hainbeste neska eduki, baina, bestalde, Gorengo mailako taldean 16 jokalaririk bakarrik ditugu, hauetako batzuk beterano samarrak, eta Kadete mailatik bi besterik ez dira igoko. Beraz, gerta liteke datorren urtean talde horiek ateratzeko arazoak izatea. Horregatik, ikusi egin beharko da aurten hasitako neska gazteek jarraitzen ote duten eta futboleko engranajearen sartzen diren".

Horretarako, neskek zer nahi duten edo futbolari zer eskatzen dioten ulertzea da gakoa, Uriarteren ustez. "Beharbada beraien helburua ez da errendimenduan sakontzea, eta nahiago dute futbolaz gozatu eta praktikatu aisialdiko beste jarduerak bat bezala. Kontuan hartu behar da gaurko gazteek aktibitate asko praktikatzeko dituztela, eta guk ez diogu horri mugarik ipini nahi, entrenamendu saioak bateragarriak baldin badira behintzat".

## **MAILA HOBEA**

Kalitate aldetik ere salto bat eman dela uste du Uriartek. "Gaur egun Alebinetan hasten diren lehen urteko neskek badakite futboleko jokatzeko. Infantiletan dugun taldea ere potentzia izango da, eta Kadete mailako neskek izugarriko denboraldia egiten ari dira (igoera faserako sailkatu dira)".

Oñatitiko kanpora joan diren jokalariek dagokienez, sentipen gazi-gozoa duela aitortu digu. "Oso pozgarria da hemen hazitako jokalariek hain maila ona ematen ikustea, eta normala da Realera edo Eibarrera joatea, baina gauzak ondo pentsatuta egiten ez badira, gurea bezalako talde txikiei kalte handia egin diezaiakete". ■





**Eider**  
Egaña Bikuña


19 urte  
**S.D. EIBAR**

S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR

Sei denboraldi darama Eiderrek Eibarren. Kadete mailako jokalaria zela hasi zen armaginekin eta aurten, Euskal ligan lider dagoen taldeko atezain titularra da.

Ate azpian bizia, eta bereziki, hanken jokuan bilakaera nabarmena izan duen jokalaria da Egaña. Nortasun eta indar handikoa. Asko hazi da arlo fisiko zein pertsonalean oso gazterik erronka handiei aurre eginez baitabil talde armaginarekin.

Bi denboraldi daromatza lehen taldeko dinamikan eta iazko ekainean debutatu zuen Iberdrola ligan. Elitera iritsi den Oñatiko lehen futbolaria izanik, Aloñak omenaldia egin dio berriki. Igandean, ohorezko sakea egin zuen Azkoagainen.



# Talentua garatzen

Kantitatetik kalitatea sortzea errazagoa dela diote. Bada, Aloña Mendiko harrobitik maila handiko hainbat jokalaria atera dira azken urteotan. Oso gazterik nabarmentzen hasi, eta errendimendu altuko klubetara salto egin duten herriko bost jokalaria gazteren egoera aztertuko dizuegu alboko lerroetan.



**Elene**  
Guridi Mesonero

19 urte  
**R. SOCIEDAD**

REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD

Laugarren denboraldia hasi du aurten Realean Elenek. Lehen Nazional mailan jokatzen du (bigarren taldea) eta sailkapenean 5. postuan daude uneotan.

Zelai erdian jokatzen du eta baloiarekin tratu fina duen jokalaria da Guridi. Euskadiko selekzioan ibilitakoa, eta Donostiara iritsi aurretik, Eibarren ere aritutakoa.

Gaztea izan arren, lehen taldearekin behin baino gehiagotan ikusi dugu. Asteko lan-saioetan, lagunartekoetan, eta azaroan, Atletico Madrilen aurkako ligako partidaren deialdian sartu zuten.

Momentu hauetan zelaietatik kanpo dago. Ezker belauneko lotailu gurutzatuaren ebakuntzatik errekuperatzen.



**Maren**  
Arabaolaza Abarizketa

14 urte  
**R. SOCIEDAD**

REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD

Lehen denboraldia osatzen ari da Maren Realean. Orain arte, Aloña Mendiko jokalaria izan da eta irailaz geroztik, emakumezkoen hirugarren taldeko kidea da. Gorengo mailan ari dira lehiatzen eta lehen fasean partida guztiak irabazi ostean, bigarren fasean (igoera fasea) bide berdinetik jarraitzen dute.

Gorpuzkera eta indar handiko erdiko atzelari gisa aritzen da eta urte hasieran, Espainiako 15 urtez azpiko selekzioaren entrenamendu saio batzuetan ibili zen Madrilan. Bere adinako estatu mailako jokalaria onetsuenekin elkartzeko aukera izan zuen urtarrilean Las Rozasen, eta esperientzia, "gogorra, baina ikasteko eta hobetzen jarraitzeko, oso aberasgarria" izan zela aitortu digu.



**Ane**  
Isasisasmendi Egaña

14 urte  
**R. SOCIEDAD**

REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD • REAL SOCIEDAD

Marenekin batera iritsi zen Donostiara Ane. Zazpi hilabete soilik daromatza Zubietako faktorian eta Arabaolazarekin batera, aurten sortu den proiektu berri honetako kide da Isasisasmendi. Adinez kadeteak diren arren, gorengo maila nagusian lehiatzen ari dira.

Erasoko jokalaria da Ane. Zelai erditik aurrerako postuetan dotore mugitzen den horietakoa.

Jokalaria oso gaztez osatutako taldea duten arren, ikasten jarraitzea, eta mailaz igotzea nahiko lukete aurtengo denboraldian.



**Elene**  
Aldekoa Arrue

14 urte  
**S.D. EIBAR**

S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR • S.D. EIBAR

Iaz Aloñan denboraldi bikaina egin ostean, udan iritsi zitzaion Eibarrera joateko aukera Aldekoari. Bada, denboraldi erdi soilik darama talde armaginean.

Atezaina da Elene eta ohorezko kadete mailan jokatzen ari da. Liga txapelketa oso ona burutzen ari dira eta sailkapenari begira jarriz gero, lehen postuan kokatuta daude. Kirol zein arlo pertsonalean "ikasten eta hazten" jarraitzeko helburuarekin onartu zuen erronka Elenek.

Baliabide handiagoko klub batean egotea "oso aberasgarria" dela dio eta joan-etorrian ibiltzeak diziplina eskatzen badu ere, "oso esperientzia ona" izaten ari dela esan digu. Euskadiko selekzioak deitu berri ditu Elene, Ane eta Maren.





## EUROPAKO TXAPELDUN



**ATLETISMOA** Bragan (Portugal) jokatu diren master mailako XIII. Europako Atletismo Txapelketan hiru domina lortu berri ditu Marisol Ramos korrikalari oñatiarrak 60 urtetik gorakoen kategorian. Otsailaren 20an urrezko domina irabazi zuen kros luzean, 7km.-ko ibilbidea 00:29:01ean osatuta.

Pista estaliko probei dagokienez, beste bi brontzezko domina kolkoratu zituen astean zehar. 3.000 m.-ko lasterketan (11:58:59) eta 1.500m.-koan (5:38:92). Zorionak!

## Oñatiko Duatloia martxoaren 19an

Martxoaren 19an jokatu da Oñatiko XXIX. Duatloia, sprint modalitatean. Hau da, hasteko 5km.-ko korrika saioa egin behar dute atletak, herri barruko 2,5 km.-ko ibilbideari bi itzuli emanda. Ondoren, Foruen plazan bizikleta hartu eta 20 km. egin behar dute, zirkuitoari bi buelta emanda. Bizikletako partzalean Murgia auzoko buelta eman eta Udana aldera joango dira, errepidea moztuta dagoen punturaino, berriz ere plazara bueltatzeko. Amaitzeko, 2,5 km.ko korrika saioa izango dute lehiakideek.

Arratsaldeko 16:30etan hasiko da proba, emakumeen irterarekin. Gizonezkoak 16:45ean abiatuko dira.

### DUATLOI TXIKIA

Goizeko 11:30etan hasita, Benjamin eta Alebin mailako gazteentzako duatloia jokatu da.

## Martxoko mendi irteera, Badaia



Aloña Mendik martxorako prestatu duen mendi ibilaldia Arabako mendebaldean dagoen Badaia mendikatean barrena egingo da. Zuiako haranean dagoen Aperregi herrixkan abiatu eta Oro Santutegia eta Atxabal (888m) nahiz Ganalto (900m) tontorrek igoko dituzte, Otogioen herrixkan amaitzeko (18,5km. /+900m.), 6-7 ordutan egiteko modukoa. **Martxoaren 20an** izango da irteera, eta hilaren 17a da izena emateko azken eguna, Aloña tabernan. Prezioa, 10€. Derrigorrezkoa da federatuta egotea.

## Zelaia txapelkun, binakako Eusko Label txapelketan

**PILOTA** Ados Pilota klubak antolatu duen Eusko Label binakako txapelketan parte hartu dute Uxue Egañak eta Madalen Zelaia (txapelketa honetan bigarren abizenarekin aritu dira), eta lan bikaina egin dute biek ala biek, finalera iritsita. Garaipena eta txapela Madalenezkat izan zen, Olatz Ruiz de Larramendirekin batera, 22-11 nagusitu baitziren lera eta Uxueren aurrean.



## Gipuzkoako txapelketa ona, Euskal Herrikoa prestatzen

**IGERIKETA** Neguko txapelketa garrantzitsuetan murgilduta dabilta Aloña Mendi igeriketa saileko lagunak. Otsaileko lehen asteburuan esaterako, Gipuzkoako txapelketan lehiatu ziren Bergarako Agorrosingo igerilekuan. Bertan izan ziren hemeretzi ordezkariak 13 domina eskuratu zituzten, eta orokorrean, oso marka onak lortu zituzten asteburu guztian zehar.



Orain, martxoaren 19-20ko asteburuan Gasteizen jokatu den junior eta absoluto mailako txapelketa prestatzen ari dira burubelari, Josune Odriozolaren igerilariak. Aloña sei ordezkari eramango ditu Mendizorrotzako igerilekuan jokatu den hitzordu garrantzitsu honetara.



**TXIRRINDULARITZA** Aloña Mendik bere taldeen aurkezpenean egin du. Denera 44 neska-mutil ariko dira bost taldetan banatuta: Benjaminak (5), Alebinak (15), Infantilak (7), Kadeteak (8) eta Juniorrak (9). Martxoaren 26an eskolarte mailako probak jokatu dira Oñatin.




Argk.: Oier Yaniz



# MILA MODUK bigarren diskoa grabatu du

**Martxoaren 4an aurkeztuko dute kultur etxeokan, formatu akustikoan**



INTRA izenburua duen estudioko bigarren lana grabatu du **Mila Modu** taldeak, eta ostiral honetan (martxoak 4) aurkeztuko du kultur etxeko zine aretoan (19:30), formatu akustikoan. ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean eskura daitezke sarrerak, 3€tan). Abesti berriak jotzeaz gain, *Inor ez da inor* kantaren bideoklipa ikusi, eta abestietako batzuen letrak idatzi dituztenekin berba egiteko aukera egongo da bertan.

Hamar kanta biltzen ditu disko berriak, hain bereak dituzten melodia landuekin *power pop* indartsu bat sortuz. "90. hamarkadako rock doinuen eragina duten abestiak dira, esentzia melodikoa eta konponketa nahiz koro landuak mantenduz" azaldu digute taldekideek. Ahotsetan herriko lau musikariren (Maddi Arlanzon, Eider eta Naia Herraiez, eta Maddi Santacruz) laguntza izan dute, eta perkusioetan Victor Sanchezena.

Konfinamendu garaian sortutakoak dira disko honetako kantu asko, eta hitzetan islatzen omen da hori. "Kutsu humanistago bat dute, barnerako begirada bat, gure inguruaren ikuspegiari buruzko hausnarketa bat, kanpoan erantzunak eta errudunak biltzeko dugun joera alde batera utzi, eta

lehenengo norberaren buruari begiratu eta barruan ditugun gauzak baloratzeko aldarri bat, nolabait esateko". Hortik dator *Intra* izenburua ere, "gure ikuspuntu, jokamolde, irizpide eta abarrak zalantzan jartzera datorrena" azaldu digute.

Kontzeptu horren erakusle da azaleko irudia ere. Old Mendoza artista mexikarrak egin du eta okil baten kortexa erakusten du. "Hasiera baten pentsa dezakegu okilak zuhaitzak kolpatzeko duen gaitasuna (20 aldiz segundoko) bere mokoan datzala, baina bere burua barrutik begiratu ezker, ikus dezakegu nola babesten duen mingainak bere burmuina, airbag baten gisa; hor dago okilaren gaitasunaren sekretua, barnean, alegia". Abestietako hitzak sortzeko Iñaki Olalde (*19 kolpe*, *Herdoildutako urratsak*), Arantzazu Ugarte (*Iraganeko aingurak*) eta Iñaki Goitiaren (*Itzala beti itzal*) lankidetzan izan dute, aurreko diskoan bezala.

Mila Modu taldea 2019an sortu zen Xabier Yanizen (gitarra eta ahotsa) gidaritzapean *Hor Konpon*-en taldekide izandako Andoni Campos (baxua) eta Oskar Arlanzonekin (bateria) batera, eta iaz Roberto Ferreiro (Malenkonia) gitarra jolea batu zitzaion.



## ANTZERKI INPROBISATUA

Hastapen mailako ikastaroa antolatu du Debagoieneko Antzerki Plataformak

Bapateko antzerkigintzaren oinarriak deskubritzeko hastapen ikastaroa antolatu du Debagoieneko Antzerki Plataformak (DAP). Helduei (+16 urte) zuzendutako tailerra da, eta baliogarria izango da, besteak beste, jendaurrean hitz egiteko gaitasunak hobetzeko, sormena lantzeko, interpretaziorako gaitasunak lantzeko, edota denbora pasarako.

Hiru saio izango dira, martxoaren 5, 12 eta 26an, Elgeta, Aramaio eta Eskoriaztan. Arlo ezberdinak jorratuko dira saio bakoitzean; beraz, ez da beharrezkoa guztiak egitea. Larunbatean izango dira tailerrak, 6 ordukoak (10:00-13:00 eta 15:00-18:00). Modulu bakoitzaren prezioa, 60€; hirurak eginez gero, 150€.

### EGOITZ AIZPURI

Irakaslea Egoitz Aizpuru oñatiarra izango da. Azken urteotan antzerki inprobisaketan sakontzen dabil Madril aldean, astero emanaldiak egiten dituen *Jamms* antzerki konpainian, eta han ikasitakoa azalduko du orain Debagoienean.

# 'GEURETIK SORTUAK'

**Udalbiltzaren 'Geuretik sortuak' ekimenari esker sortutako antzezlanak ikusi ahal izango ditugu gurean**

Oñatin egonaldi artistikoa egin duen Bonbon Beltz Zuberoako taldeak otsailaren 25ean aurkeztu zuen 'Harri minak' lana, eta beste lau antzezlanak hurrengo asteetan ikusteko aukera izango dugu



## Bidaide

Metrokoadroka Sormen Laborategia

Martxoak 5, larunbata, Santa Ana antzokian, 19:00 (8€)

Metrokoadroka Sormen Laborategiak Atarrabian eta Uharten egin zuen egonaldi artistikoan sortutako **Bidaide** antzezlanaren ikusteko aukera izango dugu martxoaren 5ean. Herrietako erraldoien iruditeriatik modu poetikoan abiatuta, handia eta txikia izatearen arteko aldeaz, herrietako kulturgileen ikusezintasun hautazkoaz edo ez hautazkoaz, kultura bizitzeko moduez mintzo da antzezlanaren modu bisual, poetiko eta umoretsuan aldiro modu ezberdinean gauzatuko den teatro-ekintza bat da. Maite Aizpurua, Ainhoa Alberdi, Idoia Beratarbide, Iraia Elias eta Idoia Hernandez ariko da aktore lanetan. Josu Zubia oñatiarrak ere parte hartu du antzezlanaren ekoizpenean.



## Trapu zikinak

Lore More antzerki taldea

Martxoak 13, igandea, Santa Ana aretoan, 19:00 (8€)

Antzinako herri-garbilekuetan emakumeek etxeko trapu zikin errealek eta metaforikoak nola garbitzen zituzten kontatuko digu Lore More taldeak. Oartzungo herri garbilekua izan dute inspirazio iturri obra sortzeko orduan. "Trapu zikinak etxean garbitzen dira" esaten bada ere, herri garbilekuek, egun mutu dauden harriztarrek, beste errealitate posible bat uzten dute agerian: trapuok kalean garbitzen zirela, alegia, bizilagun, senide eta lagunekin batera: intimitatearen ideia begi berriz aztertu dezakegu iraganeko ur horietan murgiltzen baditugu eskuak. Lara Villanueva, Maialen Diaz Urriza eta Mikele Urroz Zabalza ariko dira aktore lanetan.



**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia



**PAKITA**  
Altzariak



Berezoa Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

## IRAZOLA

**Okindegia**



Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
baserrniko agia,  
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



## GEURETIK SORTUAK



Euskarazko sorkuntza sustatzeko asmoz, Udalbiltzak —Euskal Herri osoko udalak batzen dituen erakundea— 2020ko urte amaieran abian jarri zuen ekimena da **Geuretik Sortuak**. Globalizazioaren ondorioz, eta espainiar nahiz frantziar estatuak dituzten ahalbide ugariengatik, atzerriko hizkuntzetan egindako kultura nagusitzen ari da gure gizartean, euskararen kalterako. Horri aurre egin asmoz, euskara hutsean sortutako artearen (filmak, antzerkiak, liburuak...) sormena, ekoizpena eta hedapena sustatzea da Geuretik Sortuak-en helburua. Hala, 2021eko urtarrilean beka deialdia egin zuen Udalbiltzak, eta aurkeztutako 72 proiektuetatik 26 hautatu zituzten: 16 literaturan eta 5na antzerkigintzan eta zinegintzan. Aukeratutako sortzaileek egonaldiak burutu zituzten herri ezberdinetan eta, orain, sortutako lanak Euskal Herri osoan zehar zabaltzeko unea iritsi da. Oraingoan, antzezlanak ikusteko aukera izango dugu Oñatin.



### Sexberdinak

Tanttaka Teatroa

Martxoak 20, igandea, 19:00 (8€)

Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan

► Tanttaka Teatro konpainia donostiarrak Aitziber Garmendia eta Telmo Irureta aktoreak igoko ditu eszenatokira. Garun-paralisia duen kazetariak eta kontraesanetan erdi itota dabilen goxoki saltzaileak beren bizipen afektibo-sexualak azalduko dituzte inolako konplexurik gabe, gutako bakoitzak, norbere paralisiarekin, beldur, amets eta ilusio ezberdinak ditugula erakusteko. Bi lagunen istorioa, umorez eta minez tindatuta.

### GURPIL AULKIAN ESERITA.

Sexberdinak antzezlanean ikusleak gurpil-aulkian eserita egongo dira eta, horregatik, emanaldi hau Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoko areto nagusian izango da (60 lagunentzako tokia).



### Eresia

Oier Zuñiga, Eneko Gil eta Belen Cuz

Apirilak 2, larunbata, Santa Ana aretoan, 19:00 (8€)

► Bergara, Elgeta eta Antzuolan egindako egonaldian Oier Zuñiga nafarrak Eneko Gil dantzariarekin eta Belen Cruz aktorearekin sortutako antzezlanak da **Eresia**, eta hauxe kontatzen duena: ama hil da, hori da egia. Kantu bat, dantza bat, erritu bat... lore bat eskaini nahiko nioke.

Hildakoei gorazarre egiteko abesten ziren bertsioak dira Eresiak, baina nik jada ez dut kanturik hildako ama agurtzeko. Ohiko dolu errituak nahikoa ez direnaren sentsazioetik abiatuta, dispositibo poetikoen bidez bestelako dolu-praktika esperimentatzeko xedea nuke, ekintza eszenikoa bera, dolu erritu kolektibo bilakatuz.

EMANALDIETARAKO SARRERAK (8€) [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) atarian / Txokolateixan / Leihatila digitalean

  
oñabike

oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK



# AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



## INGURUMEN JARDUNALDIAK

MARTXOAK 5 / 09:00

**ZUHAITZ FERIXIA**

Zuhaitz eta landare azoka. Foruen plazan.

MARTXOAK 6 / 10:00

**ZUHAITZ EGUNA**

Hitzordua 10:00etan. Foruen plazan.

MARTXOAK 13 / 10:00

**ZUHAITZ EGUNA (ALOÑAN)**

Itxiturak konpondu eta hondatutako zuhaitzak ordezkatzeko dituzte. Unaimendin.

## KONTZERTUAK

MARTXOAK 4 / 19:30

**MILA MODU**

Oñatiarren disko berriaren arukezpena. Kultur etxean.

MARTXOAK 4 / 21:00

**THE LIO + AKULU + SOFOCAOS**

Punk-rock kontzertua. Ikatz tabernan.

MARTXOAK 12 / 19:30

**RAMADA INN + MOTZ**

Oñatiko taldeen kontzertua. Gaztetxean.

MARTXOAK 17 / 19:00

**EKIÑE CASADO**

Musikari arrasatearra Antixena gaztetxean.

MARTXOAK 18 / 21:00

**ATTURRI + STREETWISE+KONTRALDE**

Punk Oi! kontzertua. Ikatz tabernan.

MARTXOAK 20 / 13:00

**MUSIKA BANDA**

Haur eta gaztetxoei zuzendutako kontzertu didaktikoa. Zubikoan.

MARTXOAK 20 / 12:00

**DUO JADE**

Kubatar musika alternatiboa. Gaztetxean.

## TERTULIXAN SAIO IREKIA

Martxoak 8 / Kultur etxean, 18:30

### El encaje roto



Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Emilia Pardo Bazanen (1851-1921) *El encaje roto* liburua aztertuko dute udal liburutegiko gaztelerazko Tertulixan saioan, Mónica Leivak gidatuta. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ipuin antologia bat da. Saioa irekia izango da nahi duten herritar guztientzat.

MARTXOAK 27 / 12:00

**AFRIKA BIBANG**

Soul doinuak. Gaztelekuan.

APIRILAK 1 / 21:00

**THE NORTHAGIRRES**

Urretxuko rock taldea Ikatz tabernan.

## ANTZERKIA

MARTXOAK 5 / 19:00

**'BIDAIDE'**

*Metrokoadroka* sormen laborategiaren eskutik. Sarrera: 8€. Santa Ana antzokian.

MARTXOAK 13 / 19:00

**'TRAPU ZIKINAK'**

*Lore More* taldearen eskutik. Sarrera: 8€. Santa Ana antzokian.

MARTXOAK 20 / 19:00

**'SEXBERDINAK'**

*Ttanttaka Teatroa* konpainiaren eskutik. Sarrera: 8€. Santa Ana antzokian.

## HITZALDI-SOLASALDIAK

MARTXOAK 16 / 19:00

**'INDEPENDENTZIA IPAR. ESTATU PROPIOA ZERTARAKO?'**

Floren Aoiz, Iratxe Delgado eta Igor Arroyo. Kultur etxean.

MARTXOAK 17 / 18:00

**'PARTE ZAHARRA ASKE!'**

Parte Zaharra Aske plataformako eta auziperatuen abokatua. Gaztetxean.

MARTXOAK 22 / 18:30

**'KOITERETZIA'**

Iñaki Segurola 'dudazionista'ren eleberrirako dialogikoaren aurkezpena. Pandemiaren ertz ezberdinak eta beste hamaika kontu jorratzen ditu: zientzia ministeriala, ezagutza-boterea.... Gaztetxean.

MARTXOAK 21 / 17:30

**'UDABERRIKO LANDAREAK'**

Tina eta Iban. Pake Lekun.

OMARTXOAK 23 / 19:00

**'DOMINAZIOAREN ERRO HISTORIKOAK: NEOLITIKOTIK KAPITALISMORA'**

Aimar Uribesalgo. Antixena gaztetxean

OMARTXOAK 29 / 19:00

**'KRISI EKOLOGIKOAREN AURREAN ZER?'**

Mikel Otero eta Leire Astigarraga. Kultur etxean.

## IKUKIZUNAK

MARTXOAK 30 / 19:00

**'EMAKUMEAK'**

Dantza ikuskizuna, dokumentala eta nobela grafikoa Kultur etxean.

## ELKARTASUN EGUNA

MARTXOAK 19 /

**'PARTE ZAHARRA ASKE'**

Bazkaria, elkarretaratzea (18:30) eta kontzertuak gaztetxean (20:00): *Rebel Noise*, *Lee kore*, *Lehen Ierroa* eta *Lizartxo*.

## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Haziendarekin
- Informazioa
- Trafikorekin
- Salmenta
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: [inkorta@teleline.es](mailto:inkorta@teleline.es)

GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

## AHOZKOTASUNA

### La Matrioska ipuin kontalari txiletarrak



Bigarren urtez jarraian Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdian parte hartuko du Udal Liburutegiak, eta horri esker Txileko Matrioska taldeko ipuin kontalariez gozatu eta beste kultura batzuetara hurbiltzeko aukera izango dugu **martxoaren 11n**. Bi saio eskainiko dituzte: **'Cuentos entre mar y cordillera'** (umeentzat, 17:30) eta **'Cuentos latinoamericanos'** (helduentzat, 19:00). Biak gaztelaniaz.

### IPUIN MUSIKATUA

Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan, 4-5 urte arteko haurrei zuzendutako saioa eskainiko dute Nerea Ariznabarreta ipuin kontalariak ea Mariano Hurtado musikariak. Ordu erdiko bi saio (17:30 / 18:15) eskainiko dituzte **martxoaren 21ean**. Izen-ematea ohiko moduan egingo da.



### Hileko gomendioa

XX. mendearen hasieratik Bigarren Mundu Gerra amaitu arte, Japoniako armada inperialoko sexu-esklabo izan ziren milaka emakume korearren historia. "Kontsolamendurako emakumeak" esaten zaie, baina guztiek dute izena eta abizena. Narrazio gogorra bezain poetikoa.

## ZINEA



### Martxoak 3 - 7

#### ZINE KLUBA:

**Libertad**

**NAGUSIAK:**

**Coda**

**GAZTETXOAK:**

**4 chicos y esto**



## ORDUTEGIA

**Zine-kluba:** Osteguna (20:00)

**Nagusiak:** Ostirala (22:00), larunbata

(22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00)).

Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)

**Gaztetxoak:** Larunbat eta Igandea (17:00)

### Martxoak 10 - 14

#### ZINE KLUBA:

**La hija oscura**

**NAGUSIAK:**

**Licorice Pizza**

**GAZTETXOAK:**

**Ainbo,**

**Amazoniako gerlaria**



### Martxoak 17 - 21

#### ZINE KLUBA:

**Un amor**

**intranquilo**

**NAGUSIAK:**

**El triunfo**

**GAZTETXOAK:**

**2 colegas y la gran bestia**



### Martxoak 24 - 28

#### ZINE KLUBA:

**Un héroe**

**NAGUSIAK:**

**Batman**

**GAZTETXOAK:**

**Super ¿quién?**



## FARMAZIA

### ANDUAGA

**San Lorentzo 3** ☎ **943 78 21 16**

Martxoak 4, 5, 6, 14, 15, 23 eta 24.

Apirilak 1, 2 eta 3.

### IGARTUA

**Kale Zaharra 1** ☎ **943 78 01 22**

Martxoak 7, 8, 16, 17, 25, 26 eta 27.

Apirilak 4 eta 5.

### GARATE

**Kale Barria 42** ☎ **943 78 05 58**

Martxoak 1, 9, 10, 18, 19, 20, 28 eta

29. Apirilak 6 eta 7.

### ULDAIN

**Kale Barria 6** ☎ **943 78 11 28**

Martxoak 2, 3, 11, 12, 13, 21, 22, 30

eta 31. Apirilak 8, 9 eta 10.



## MERKATU TXIKIA

### LOKALA ALOKAGAI

Patruce Kalen garaje edo almatzen bezala erabil daitekeen lokala alokagai. 695758526.

### ETXEBIZITZA EROSI

Etxebizitza bat erosi nahi nuke Oñatiko erdigunean, 120m<sup>2</sup>-tik gorakoa. Deitu: 610466020

### ETXEBIZITZA EROSI

Erosten dut pisua edo apartamentua Oñatin. Deitu: 680398022.

### ETXEBIZITZA SALGAI

Aozaratzka kalean (4 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela, bat egokituta). 685727662 / 665712294.

## ODOL ATERALDIA

**MARTXOAK 18 / 16:30-20:30**

Enpresagintza fakultatean.



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

# FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(\*) Itten: arrastua, pistia

## AURREKOMENDIKO — SARRAMENDI BASERRI INGURUKO — HIRU ITTURRI

### 3) Albitxudi-itturri (Albitxiko itturrixa)

Itturrixa topaitteko, kaletik urten eta, Torretxebarritik gora doian pistiari jarraituta, Sarramendi baserriraiño jo; han zagozela, haren ondoko ugaratxuen istinga<sup>1</sup> ondora fan, eta handik Korosbizkar [Koixkar] Garaiko aldera doian basobidia hartu eta jaisten zoiazelara une batian behera begiratuta, beheko arruan, ziharo ezlekuan, uralita bat bistaratuko da. Hantxe dago **Albitxudi-itturri**. Izena basuak emuten xao, izan be bixak dira Albitxudi. Garai batian sendatxo bat baeguen itturriaraiño; gaurko egunian, berriz, arimarik ibiltten eztalako, oso zikin eta ixixa desagertuta dago.

Itturriak askia eta bere albergia dako, uralitaz tapauta esandako moduan, eta ura jasoteko bonbatxo bat be bai, Sarramendira eruateko ebaltzen dana. Garai baten, puxetarri bat be baekuan; gaur egunian, ebalerarik emuten etxakolako, oolduixak hartuta eta basuarekin bat egindda agiri da. Fama oneko itturrixa da, ur oso hotzak urteten dauelako eta eztalako sekula agorketan. Sarramendikuak ura hartzeko eta puxetia joteko —erropia astinketako<sup>2</sup>— ebaltzen euen; eta behetarrak, osterara, ura hartzeko, batez be, euren baso-sailletara etorten ziranian suegurretara, idatarara, edota, bedarretara.

Argibidiak: Sarramendiko Migelanjel Kortabarria. Eskerrik asko!

<sup>1</sup> txantxikuen putzua

<sup>2</sup> aklaraitteko



Goixan, Koixkar garaikua baserrixa, Albitxudi itturritik ikusitta. Ezkerrian, Albitxidiko albergia.

## >> JAKINGARRIXA

Zoritxarrez, leku-izenetan galera haundixa suertau da azkeneko bi belaunaldi edo jeneraziñotan. Ia, ba, asmaitten dozuen zela esaten osten gure gurasuak leku-izen honeiri. Horretarako lotu oraingo izenak lehenagokuakin.

#### ORAINGUA

1. Kurtzebarri (mendixa)
2. Peña del diablo
3. Sanpru
4. Kale Zaharreko beheko partia
5. Olako torria
6. Olaitturri
7. Sancti Spiritus Unibersidadia eta zubixa arteko gunia
8. Kantue zapaterixia
9. Urgain eskola ingurua
10. (Jose) Moiaua kalia

#### LEHENGUA

- A. Oraitturri
- B. Arboleda txikiña
- C. Kolejialde
- D. Artzain kale
- E. Ziuntza / Ziontza
- F. Aitzabal
- G. Mediku presia
- H. Bidaurretako torria
- I. Naparreneko kantoia
- J. Elorregi



## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



### Lizaur kalia kotxe barik

**A**zelakotxe aldia, ezta? Urte askotxo pasau dira, egixa. **Lizaur kalia** moldaiten ebiltzen artian: hasierako etxe-multzo batzuk jasota edo jasoten; beste batzueiri laister ekingo osten. Orduko tren-estazifotik begiratuta, kaliaren eskumako aldiaren agiri dan eraikiña egin euen **lehenengo 1957xan, Altunatarren** familixiaren seme-alabentzako. Ezkerretara ikusten dogun pisutako etxe bakartixa **Oñatiko kontzejuaren** aginnduz modutu zan **1959-1960xan**: haren beheko plantara aldatu zittuain ordura arte Kale Zaharreko botika gaiñian egozen **telefono publikuaren instalaziñuak**; hango etxe-bizitzak, barriz, udal langillendako izan ziran. Telefonikiaren lekuan umiak Ludotekia dakoi aspalditxuan.

Ondo erreparau ezker, telefono-etxe hori zihero akabo barik daguela konturatuko zarai. Horrek erakusten dosku **argazkixa noizkua dan: 1960. urtekua**, hain zuzen be. Berandu barik etorri ziran hurrengo etxe-illarak be: Telefonikiari erantsita, **1961etik aurrera Cegasa** enpresako enpliauentzat egin ziranak, eta zubixaz bestaldeko lehenengo multzoa, orain etxepeian autoeskolia dakona; horren ondorengiak, Arrazolarren etxe pareraiñokuak, **1972xan** eraiki ziran. Fotografixan ikusten ezpada be, esku-makaldian, Kale Zaharreko kantoian, beste pisu-pillatxo bat jaso zan, **Largoneko eta Abaunzen etxe zahar bixak bota eta kalia zabaldu ondoren**.

**Trenari** eta trenbidiari **dozenerdi urte** pasatxo geraketan xaten, 1967ko Gabon Zahar egunian betiko kendu zittuain arte. Gerora, dakitzuenez, **estaziñua posta-etxe** bihurtu da. Eztago, jakiña, kuartel barrixaren arrastorik, hurrengo hamarkadan jaso zalako. Agustiñuen komentuak eta eliziak kanpotik eztakoi, itxura batian, aldaketa haundirik. Torrealdian barriztau bariko **Zumeltzegi** torria, **Osasun-villa** txaleta eta erre aurreko **Torretxebarri** baserrixa ikusi geinke. Dana dala, deigarixena orduko **lasaitasuna** dogu: **oiñezkuak trankil kale erdittik, automobil barik**.

Eta zergatik jarri xakon kale zabalorri Lizaur izena? Ba, **Damian Lizaur Lasa** (1885-1956) oñatiarra izan zan gure herrixan XX. gizaldixaren lehenengo erdixan **lan ugarixen eta ikusgarrixenak** proiektau eta zuzendu zittuan **arkitektua**. Beste askoren artian, Oñatiko Hirigintza-Plan Orokorra be burutu eben. Kale honen obrak hasteko ziranian **Abadiñon hil zan istripu bildurgarrixan**, bere bi alaba eta taxistiarekin batera, trenak kotxia bete-betian harrapota. Laurak ziran oñatiarrak.

Argazkixa Jose Luis Plazaolak atara eben orain dala 62 urte. Guri Iñigo Arregiren bittartez heldu xaku. Anaje Kortabarriak eta Xabier Zelaiak argibide zihatxak samurtu doskue. Eskerrik asko danoiri!



# MERKATARIAK



# ERDIGUNERA



**M8** EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



#NiTokikozale



#NiTokikozale